

Hizkuntzen erabileraren kale neurketa

EUSKAL HERRIA |
2021



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Txostenaren egileak: Olatz Altuna Zumeta, Maialen Iñarra Arregi eta Asier Basurto Arruti

Ikerketaren zuzendaria: Olatz Altuna Zumeta

Landa-lanaren arduraduna: Maialen Iñarra Arregi

Batzorde zientifikoa: Eneko Gorri, Iñaki Iurrebaso Biteri, Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba, Paula Kasares Corrales, Xabier Isasi Balantzategi

Espazio publikoaren azterketa: Oihana Santolaria del Campo, Koldo Telleria Andueza eta Irati Otamendi Irizar

Finantza-arduraduna: Isabel Godinez Hidalgo

Komunikazio arduraduna: Asier Basurto Arruti

Datu basearen arduradun teknikoa: Nestor Urrestaratzu Ramos (Datu Tailerra)

Azpiegitura informatikoaren arduraduna: IZT Informatika Zerbitzu Integrala

Aholkularitza estatistikoa: Eñaut Urrestaratzu Ramos (Datu Tailerra)

Neurtzaileen koordinazioa: Arrate Arbaiza Lekue (Araba), Lorea Zulaika Arriaga (Bizkaia), Belen Uranga Arakistain (Gipuzkoa), Maialen Iñarra Arregi (Ipar Euskal Herria) eta Oianko Garde Jaunsaras (Nafarroa).

Babesleak: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa Fundazioa, Bilboko Udala, Vitoria-Gasteizko Udala, Iruñeko Udala, Donostiako Udala, Agoizko Udala, Aittu Euskara Elkartea-Beasaingo Udala, Amasa-Villabonako Udala, Andoaingo Udala, Anoetako Udala, Antzuolako Udala, Aretxabaletako Udala, Arrasateko Udala, Astigarragako Udala, Azpeitiako Udala, Bermeoko Udala, Debako Udala, Eibarreko Udala-Akebai, Erandioko Udala, Ermuako Udala, Errenteriako Udala, Eskoriatzako Udala, Galdakaoko Udala, Gernika-Lumoko Udala, Getxoko Udala, Gorbeialdeako Kuadrilla, Hernaniko Udala, Hondarribiako Udala, Laudioko Udala, Legazpiko Udala, Lekunberriko Udala, Lezoko Udala, Oiartzungo Udala, Oñatiko Udala, Ordiziako Udala, Pasaiaiko Udala, Sakanako Mankomunitatea, Txorierriko Mankomunitatea, Urduñako Udala, Urnietako Udala, Urretxuko Udala, Usurbilgo Udala, Zaldibarko Udala, Zarauzko Udala, Zestoako Udala, Zumaiaiko Udala eta Zumarragako Udala.

ISBN: 978-84-124784-1-9

Lan hau **Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0)** lizentziapean zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

Soziolinguistika Klusterra

Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.
20140 Andoain

2022ko maiatza

AURKIBIDEA

1	SARRERA	5
2	IKERKETAREN KOKAPENA: testuingurua	7
2.1	Adierazle demografikoak	7
2.2	Espazio publikoaren bilakaera (1990-2020)	9
2.3	Adierazle soziologikoak	11
2.4	Adierazle soziolinguistikoak	12
2.5	Hizkuntzen erabilera datuen irakurketa	16
3	IKERKETAREN IBILBIDEA	17
3.1	Bilakaera metodologikoa	17
3.2	Garapen teknikoak	20
4	IKERKETA HELBURUAK	22
5	METODOLOGIA	23
5.1	Ikergaiaren definizioa eta ikerketa diseinuaren izaera	23
5.2	Ikuspegi metodologikoa	23
5.2.1	Ikerketa-teknika	23
5.2.2	Diseinua.....	26
5.3	Datu bilketa.....	29
5.4	Emaitzen kalkulu estatistikoak eta haztapenak.....	30
6	LANTALDEA	32
7	EMAITZAK.....	34
7.1	Hizkuntzen kale-erabilera. Emaiza OROKORRA (2021)	34
7.1.1	Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera (1989-2021).....	35
7.1.2	Hizkuntzen kale-erabilera, lurraldeka (2021)	37
7.1.3	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, lurraldeka (1989-2021)	39
7.1.4	Hizkuntzen kale-erabilera, eremu soziolinguistikoen arabera (2021)	41
7.1.5	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, eremu soziolinguistikoen arabera	43
7.1.6	Hizkuntzen kale-erabilera, hiriburuetan (2021)	46
7.1.7	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, hiriburuetan (1989-2021)	47
7.2	Hizkuntzen kale-erabilera, ADINaren arabera (2021)	49
7.2.1	Hizkuntzen kale-erabilera, adin berekoen artean (2021).....	51
7.2.2	Adin-taldearen kale-erabileraren sakonduz.....	52
7.2.3	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, adinaren arabera (1989-2021)	54
7.2.4	Euskararen kale-erabilera, adinaren arabera, lurraldeka (2021)	55

7.2.5	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, adinaren arabera, lurraldeka (1989-2021)	57
7.3	Hizkuntzen kale-erabilera, ADIN eta SEXU berekoen artean (2021)	61
7.3.1	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, adin eta sexu berekoen artean (2011-2021)	62
7.3.2	Euskararen kale-erabilera, adin eta sexu berekoen artean, lurraldeka (2021)	63
7.4	Hizkuntzen kale-erabilera, HAURREN PRESENTZIAren arabera (2021).....	64
7.4.1	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, haurren presentziaren arabera (2006-2021)	65
7.4.2	Euskararen kale-erabilera, haurren presentziaren arabera, lurraldeka (2021)	66
7.4.3	Hurrez eta nagusiez osatutako taldeetako hizkuntzen kale-erabilera, hizlariaren arabera (2021)	67
8	ONDORIOAK.....	68
8.1	Zertan da euskararen kale-erabilera?.....	68
8.2	Nondik egin aurrera?	72
9	EMAITZEN HEDAPENA.....	74
10	BIBLIOGRAFIA	75
11	ERANSKINAK	79
11.1	Ikerketaren fitxa-teknikoa	79
11.2	Neurtutako udalerrak	80
11.3	Behatutako laginari buruz.....	86
11.3.1	Adin-tartearen osaera	86
11.3.2	Sexu-banaketa.....	88
11.3.3	Solaskide-taldeen osaera	89
11.3.4	Solaskide-taldeen osaera, haurren presentziaren arabera	92
11.1	Emitza osagarriak	94
11.1.1	EAE	94
11.1.2	Lurraldeak.....	97
11.1.3	Eremu soziolinguistikoak	101
11.2	Akats-tarteak.....	105
11.2.1	Euskararen erabilera orokorrari eta adinaren arabera dagozkienak	105
11.2.2	Adin eta sexu berekoen euskararen erabilerei dagozkienak.....	105

1 SARRERA

“Hizkuntzak, komunikazio bide izateaz gain, pentsamendua egituratzea ahalbidetzen du, eta errealitatea interpretatu eta barneratzeko ezinbesteko baliabidea ere bada. Horrez gain, pertsonen gizarteratzea errazten du, eta, ondorioz, nortasunaren garapenean ere leku garrantzitsua hartzen du.”

(Zarraga Azumendi 2010, 23. or.)

Gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkarerreraginaz mintzo da aurreko aipua, hizkuntzen garapen soziala gizarte auzia delako. Hau da, pertsonen eta taldeen arteko elkarbizitzaz erabakiak hartzean (politikak edota plangintzak definitzean, esaterako), hizkuntzek izango duten tokia ere zehaztu behar da.

Hizkuntza-politika eta -plangintza egokiak abian jartzeko, ezinbestekoa da gaiaren ezagutza ahalik eta zorrotzenaren arabera hartzea erabakiak. Horregatik, errealitate soziolinguistikoa etengabe ikertu beharra dago, metodo zientifiko bidez. Horrela soilik deskribatu daiteke, era fidagarrian, hizkuntzei dagokienez gizartean gertatzen dena; eta, beraz, aurreiritziak baztertzeko eta oinarri sendoak ezartzeko tresna baliagarriak eskuratzen dira: datu zehatzetan oinarritutako deskribapenak edo analisiak, esaterako.

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketak errealitate soziolinguistikoa gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen du. Ikerketa-lan horren bidez, kaleko hizkuntza-erabilerari buruzko datu enpirikoak eskuratzen dira. Beste era batera esatearren, honako ikerketa-galdera nagusi honi erantzuten zaio: “zenbat euskara erabiltzen da kalean?”. Errealitatearen ikuspegi bat eskaintzen du, beraz, osagarri dena beste ikerketa soziolinguistikoetako emaitzekin batera.

Erabileraren gaineko datuak behar-beharrezkoak dira hizkuntzen bizi-indarra ebaluatzeko, berau baita adierazle soziolinguistiko esanguratsuena. Ikerketa honek zuzenean behatutako erabileraren berri ematen du; izan ere, datuok ez dira aitortuak (hiztunaren autopertzepzioan oinarritutakoak) inkestetan gertatzen den bezala. Ondorioz, kaleko erabileraren datuak oso garrantzitsuak dira hizkuntzaren biziberritze-prozesuan inplikaturiko pertsonentzat eta erakundeentzat.

Garrantzitsua da kontuan izatea hizkuntza-erabilera ez dela aldagai egonkorra, ezta indibiduala ere; une bakoitzeko egoerak, solaskideek eta testuinguruak baldintzatzen dute. Horregatik, datuok interpretatzeko, adierazle soziolinguistikoak, demografikoak eta soziologikoak ere hartu behar dira kontuan.

1980ko hamarkadan hasi ziren erabiltzen Hizkuntzen erabileraren kale-neurketak. 1989an egin zen, lehen aldiz, Euskal Herriko neurketa, eta ordutik ezinbesteko erreferentzia da euskararen biziberritzearen soziolinguistikan. Txosten honetan, zortzigarren edizioko erabilera-datuak berri eskaintzen da, 2021eko udazkenari dagozkionak, alegia. Beraz, azken hogeita hamar urtetako kale-erabileraren bilakaeraren balantzea egingo da.

Azken hamarkadetan eta urteetan gizarte bizitza era esanguratsuan aldatzen eta baldintzatzen duten fenomenoak daude indarrean: globalizazioa, digitalizazioa, migrazioak... Are nabarmenagoa izan da aldaketa-giroa 2020tik aurrera COVID19aren pandemiaren eraginpean. Horregatik, gizarte-aldaketa handien testuinguruan, inoiz baino garrantzitsuagoa da hizkuntzen erabileraren bilakaera arretaz aztertzea, maila orokorrean nahiz tokian-tokian.

"Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021" erakunde anitzen babesari esker burutu da. Batetik, Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien eta Kutxa Fundazioaren babesa jaso du ikerketa-proiektuak. Bestetik, 45 udalen edo mankomunitateren laguntza ere jaso da¹.

Bederatzi atal nagusi ditu txostenak. Sarrera honen ostean, testuinguruaren berri eman da, kokapen gisa. Bertan, hizkuntzen kale-erabileraren datuak interpretatzeko eta ulertzeko gako nagusiak eskaini dira. Jarraian, ikerketak azken hogeita hamar urteotan izan duen ibilbidearen berri eman da. Laugarren atalean, edizio honetako neurketaren helburuak aurkeztu dira, eta, segidan, edizio honetako azalpen metodologikoak eskaini dira. Ondoren, berriz, ikerketa honen garapenean parte hartu duen lantalde osoa aurkeztu da. Seigarren atalean jaso dira ikerketa-emaizta nagusiak. Atal horretan, erabilera-datuak deskribatu dira, eta, ondorioen atalean, berriz, datu horien gaineko irakurketa eskaini da. Azkenik, bederatzigarren atalean, ikerketa-emaizten hedapenerako sortu diren euskarriak zerrendatu dira, eta, gehiago sakondu nahi duenarentzat, eranskinetan bada azalpen zehatzagorik eta emaitza osagarriak.

¹ Bilboko Udala, Vitoria-Gasteizko Udala, Iruñeko Udala, Donostiako Udala, Sakanako Mankomunitatea, Amasa-Villabonako Udala, Gernika-Lumoko Udala, Lezoko Udala, Ordiziako Udala, Zarauzko Udala, Zaldibarko Udala, Azpeitiako Udala, Agoizko Udala, Debako Udala, Zumaiaiko Udala, Getxoko Udala, Lekunberriko Udala, Eibarreko Udala-Akebai, Erandioko Udala, Hernaniko Udala, Oiartzungo Udala, Antzuolako Udala, Anoetako Udala, Errenteriako Udala, Oñatiko Udala, Legazpiko Udala, Zestoako Udala, Bermeoko Udala, Txorierriko Mankomunitatea, Laudioko Udala, Urretxuko Udala, Zumarragako Udala, Astigarragako Udala, Urduñako Udala, Usurbilgo Udala, Andoaingo Udala, Hondarribiako Udala, Aittu Euskara Elkarte, Ermuako Udala, Galdakaoko Udala, Arrasateko Udala, Eskoriatzako Udala, Pasaiako Udala, Urnietako Udala, Aretxabaletako Udala eta Gorbeialdeako Kuadrilla.

2 IKERKETAREN KOKAPENA: TESTUINGURUA

Hizkuntza-erabilera ez da egonkorra, ezta indibiduala ere; une bakoitzeko egoerak, solaskideek eta testuinguruak baldintzatzen dute. Horregatik, datuok interpretatzeko ukipenean dauden hizkuntzen erabilera-arau sozialak oso aintzat hartu behar dira; halaber hartu behar dira kontuan adierazle demografikoak, soziologikoak eta soziolinguistikoak, azken hamarkadetan gizarte bizitza hain modu nabarmenean aldatzen eta baldintzatzen dutenak. Adierazle horien aipamen laburra dator segidan, Kale Neurketaren emaitzak hobeto ulertzeko baliagarria izango delakoan.

2.1 ADIERAZLE DEMOGRAFIKOAK

Gaindegiak eskainitako datuen arabera², 3.193.513 biztanle ditu Euskal Herriak (2020ko datua). Bizkaian bizi da biztanle gehien (1.159.717, % 36); 727.121 biztanle ditu Gipuzkoak (% 23); Nafarroa Garaiak gertutik jarraitzen dio (661.197 biztanle, % 21); 335.805 biztanle bizi dira Araban (% 11); eta, azkenik, Ipar Euskal Herrian³ bizi da biztanle gutxien (309.673, % 10).

“Euskal Herriak 22.622 biztanle irabazi ditu azken urtean [2019tik 2020ra] (+% 0,71). Hazkunde demografikoa indartzen ari da, jaiotza tasa apala izan arren, Euskal Herritik kanpo jaiotako etorkin berriei esker.”

(Gaindegia 2021, 6. or.)

Aipuak dion moduan, Euskal Herriko biztanleria hazi egin da azken urteetan, baina hazkunde hori ez da hazkunde begetatiboagatik gertatu, izan ere, euskal herritarren artean bizi-itxaropena gero eta handiagoa da eta jaiotzen kopurua heriotzena baino baxuagoa. Biztanleriaren hazkundera azken urteetako migrazio-saldo positiboari zor zaio, hala izan ezean, biztanleriak behera egingo baitzukeen.

² Iturria: EUSTAT (udal errolda), INE (udal errolda), INSEE (R.P. eta Population municipale) eta GAINDEGIA.

³ Ikerketa honetan Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak elkarrekin aztertu dira, hizkuntzen kale-erabileraren datuak eskaintzeko elkarriketa nahikorik behatu ez delako Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeak bereizteko.

1. Taula. Biztanleria osoa. Euskal Herria, 2000 eta 2020 (Abs.)

	2000	2020
EUSKAL HERRIA	2.908.176	3.193.513
Araba	287.809	335.805
Gipuzkoa	679.370	727.121
Nafarroa Garaia	543.367	661.197
Bizkaia	1.133.096	1.159.717
Ipar Euskal Herria⁴	264.535	309.673

Iturria: EUSTAT (udal errolda), INE (udal errolda), INSEE (R.P. eta Population municipale) eta GAINDEGIA.

2000-2020 urte bitarteko datuak aztertuta, Euskal Herriko bost lurraldeetako biztanle-kopuruek egin dute gora, Nafarroa Garaian, bereziki.

Jatorri atzeritarreko biztanleei dagokionez, azken 20 urteetan Nafarroan 36.690 biztanle izatetik 106.764 biztanle izatera igaro dira (hiru aldiz gehiago). Halaber, EAEn 55.858 biztanle izatetik 241.724 biztanle izatera pasa dira (lau aldiz gehiago). Gaur egun, jatorri atzeritarreko biztanleek Hego Euskal Herriko lurraldeetako biztanlerian duten pisua % 10 eta % 16 bitartekoa da. Nabarmenezkoa da multzo horren barruan jatorritik gaztelania hitzunik % 50 baino gehiago direla.

2. Taula. Jatorri atzeritarreko biztanleak. Euskal Herria, 2002 eta 2020

	2002	2020
EAE	55.858	241.724
Nafarroa Garaia	36.690	106.764
Ipar Euskal Herria⁵	-	-

Iturria: IKUSPEGI eta Nafarroako Gobernua. Migrazio Saila

Kontuan izan behar da, era berean, bizi-itxaropena handitzearekin batera, biztanleriaren zahartze-tasa igo egin dela; eta horrek, adineko pertsonen proportzioa handiagoa izatea eragin du.

"Euskal Herrian 705.880 dira 65 urtetik gorako herritarrek. Biztanleriaren % 22,1 osatzen dute egun [2020. urtea]. 2000. urtean 516.760 ziren, eta biztanleriaren % 17,8 osatzen zuten".

(Gaindegia 2021, 11. or.)

⁴ Ipar Euskal Herriko datuen artean, Lapurdiko biztanleriak izan du gorakadarik esanguratsuenak, proportzionalki. Zuberoka, berriz, biztanleak galtzen ari da.

⁵ Ipar Euskal Herrian, ez dago jatorri atzeritarreko biztanle kopuruari buruzko informaziorik.

Kale-neurketan ere, edizioz edizio, biztanleriaren zahartze horren isla jaso da. 1993an Euskal Herri osoan neurtutako solaskideen % 43 haurrak eta gazteak ziren eta % 12 adinekoak. Azken edizio honetan % 32 izan dira haurrak eta gazteak eta % 17 adinekoak⁶.

2.2 ESPAZIO PUBLIKOAREN BILAKAERA (1990-2020)

Hizkuntza-praktiketan izan diren aldaketak ulertzeko, ezinbestekoa da neurketak egin diren espazio publikoan gertatutako bilakaera ulertzea. Azken 30 urteetako aldaketa politiko, sozial eta ekonomikoek eragin handia izan dute egungo bizimoduan, nola ingurune fisikoan (plazak, kaleak, ohiko tokiak eta lekuak) hala ohituretan. Hau da, giza harremanetarako inguruak eta moduak aldatu egin dira.

1980-1990 hamarkadetan, "kaleak euskal gizartean hainbesteko protagonismoa hartu zuen non mugimendu sozial, eta bereziki, ekintza kolektiboen eszenatoki nagusi bihurtu zen" (Letamendia 2015 in Hernández eta Santamaria 2021). Gainera, "kaleak (tabernekina eta gaztetxeekin batera) gazteen sozializaziorako eta gazteen identitatea sortzeko ezinbestekotzat jotzen ziren" (Del Amo 2017-2018 in Hernández eta Santamaria 2021). Sharryn Kasmir antropologoa, Arrasaten, 1980-1990eko hamarkadako euskal gazte kultura aztertzen ari zela, bertako gazteriaren bizimoduan kaleak zuen pisua azpimarratu zuen:

"The street stands in contrast to location like the rural farmstead, home, school, and work. The street and bars [...] are locations where love is kindled and broken, where one goes to find friends and get involved, and where one's daily life is carried out".

(Kasmir 1999, 193.or in Hernández eta Santamaria 2021)

Egungo bizi inguruen diseinuak eta antolaketak globalizazioak ekarri dituen logiketan txertatu dira, eta, honela, Euskal Herriko kaleak, mendebaldeko beste edozein hiri inguruk izan duen bilakaerarantz doaz; homogeneotasunerantz, estandarizaziorantz, eta, ondorioz, tokiko nortasunaren galerarantz:

"Bizitza modernoan indibidualismotik, arrazionaltasunetik eta ezberdintasun sozialetik jaioak, gure lurralde, herri, hiri eta inguruak kontrolatu ditugu. Ustezko kontrol hau hirigintza modernoak geometrian eta formetan oinarriturik egin du. Horrela, giza bizitza mekanikoa helburu duen indibidualismora, arrazionaltasunera eta banaketa sozialera iritsi gara. Hori guztia diruaren kapitalak ezartzen dituen politikek zuzendurik egin dugu, lurraldearen kapitalaren galera handia eraginez. (...) Hirigintza eredu hori mundu guztira zabaldu da globalizazioaren bidez, eta mundu osoan paisaia berdina sortzen ari gara. Sortutako paisaia uniforme horiek kapitalak hirigintza eta lurralde antolaketak bere sistema produktiboaren beste tresna batzuk bezala erabili izana

⁶ Laginari buruzko xehetasun gehiago jaso dira eranskinetan.

erakusten digu, (...)."

(Telleria 2014, 29. or.)

Azken urteetako hirigintza gauzatzeko erabili den estrategia zonifikazioa izan da: lantokiak, biziguneak, aisialdi-guneak eta merkataritza-guneak banandu eta beraien arteko distantzia handitu egin da. Erabilera ezberdinen arteko loturak errepide bidez egiteko beharra dakar horrek, eta auto pribatuen oinarritutako mugikortasuna bultzatzea. Autoen eta errepideen ugaritasunak espazio publikoaren kalitatea jaistearen ekarri du eta, aldi berean, abiadura handitzeak pertsonen espazio publikoan egiten dituzten egonaldiak laburtzea eta gutxitzea; aurrez aurreko kontaktuak murriztu dira, soziabilitatea galdu eta baita segurtasun sententzia kolokan jarri ere.

Zonifikazioaren lehentasuna produzitzearen beharrak asetzeko da, eta egoera horrek herritarren bizimodua zatitu eta banatu egin du, lan produktiboak sustatuta eta zaintza-lanak bigarren mailan utzita. Pentsalari feministek azaldu duten moduan, eguneroko bizitza ez da kontuan hartu, eta giza zaintzarako beharrak arbuia egin dira. Beraz, azken urteetan, kaleak eta plazak elkar zaintzarako baino, kontsumo eta produkzio logiketarako prestatu dira, eta, ondorioz, kalean lanean ari den zaintzaileari espazio publikoaren erabilera asko baldintzatu zaio (Valdivia 2018).

Egiteko modu global eta produktiboarekin erlazionatuta, turistifikazioak eragin handia izan du Euskal Herrian (De la Calle Vaquero 2019): bisitarien presentzia handiagoa erdiguneetan, turismo-kontsumoari zuzenean lotutako jardueren hazkundera, negozio-mota gero eta zabalagoa eta kanpoko bezeroengana bideratua (take away, marka globalak, frankiziak), etxebizitzak denbora motzeko merkantzia-produktu turistiko bihurtzea (Airbnb, esaterako), hiri-paisaia edo eszena bat sortzea elementu turistikoak nagusi direla (espazio publikoetan ostalaritzak erabilitako terrazak adibidez)... Horrela, biziguneetan desoreka nabariak sortu dira, eta zenbait kaletan tokiko nortasuna galdu da. Nolabait, toki hauek "ez toki"⁷ bihurtu dira. Era berean, gentrifikazio-prozesuek ondorio nabarmenak ekarri dituzte hirigune askotan: diru-sarrera gutxiagoko bizilagunen desplazatzea eta merkantzia turistiko bihurtzen diren espazioekiko desjabetze sinbolikoa eta arrotza, besteak beste.

Beraz, Lefebvrek esan bezala (1968), sustatzaileen hirigintza gailendu da: espazio publikoaren beraren desberdintasunean, zatiketan, erosotasunean eta kontsumoan oinarritutako hirigintza eta diseinua, besteak beste, gentrifikazio- eta turismo-prozesuen bidez gauzatzen duena (Ricart eta Remesar 2013). Beste era batera esanda, biziguneen merkantilizazio-prozesua gertatu da. Prozesu horrek eragin zuzena izan du espazio publikoan, eta aldaketa sakonak ekarri ditu berekin. Eguneroko beharrak asetzeko balio duten tokiko komertzio txikiak desagertu dira, eta turistek edo aisialdizkoen soilik zuzendutako komertzio global eta frankiziek tokia hartu dute.

⁷ "Ez tokiak" nortasunik gabeko espazioak dira (Augé 2004), anonimoak, giza gorputzen trantsizioak, non nekez sor baitaitezke kidetasun-sentimenduak eta harremanak oinezkoak ere diren beste subjektuekin. Espazio desagokiak dira, pasatzekoak eta paseatzekoak, beti kezagarriak, nortasuna minimizatzen dutenak, norbanakoa "txikiagotzen" dutenak, non arrotz sentitzen den, garraio-trukagailu bat, azalera handi bat, edo merkataritza-eremu berri horietako batzuk bezalako egitura baten pean.

2.3 ADIERAZLE SOZIOLOGIKOAK

Mundu globalizatu honek paradigma sozial berria ekarri du, eta are nabarmenagoa izan da aldaketa-giroa 2020tik aurrera COVID19aren pandemiaren eraginpean.

Espazio publikoaren pribatizazioa izan da globalizazioak ekarri dituen aldaketa horien ondorio argienetako bat hirietako eta herrietako kaleetan, eta tabernetako terrazak dira horren erakusgarri argiena. Kalean esertzeko ordaindu beharra dago, eta horrek zenbait kaleetan egoteko eta harremanak garatzeko aukera gizartearen zati bati bakarrik eskaintzea dakar. Komertzio txikiaren desagertzearekin, kaleen behe solairuak hustu dira; ondorioz, herri txikiaren zerbitzu galera handia eta kale-bizitzaren murrizketa nabaria gertatu dira. Hiri handienetan, aldiz, nazioarteko izaera duten azalera handiko komertzioak etorri dira. Horiek horrela, kale horien bizimodua erabat aldatu da; profil ekonomiko eta adin zehatz bateko jende normatiboari zuzentzen baitzaizkio kontsumo gune horiek. Esanguratsua da, kasu batzuetan, lokal huts horiek gazteen bilgune bihurtu direla eta, ondorioz, gazteriaren kaleko egonaldiak murriztu egin direla. Gazte askok beren aisialdia eremu pribatuan⁸ igarotzea (Hernández García 2010) eragin du horrek guztiak⁹.

Aipatutako aldaketa horiek guztiek espazio publikoa erabiltzeko aukeren murrizketa eragin dute, eta, era berean, gune ezberdinen arteko desorekak ekarri dituzte. Gainera, aurrez aipatu den bezala, gizartea geroz eta zaharragoa da eta kulturalki anitzagoa. Konplexutasun horri erantzuteko mugak nabariak dira, eta segregazio espazialaren eraginez, desorekak areagotzeaz gain, ez daude giza harreman aberatsak sustatuko dituzten erabiltzaile anitzeko espazioak. Espazio horien erabilera murrizketarekin erabat loturik dago bertan hautematen den segurtasun falta (Hiria Kolektiboa 2010). Adibide bat jartzearen, haurrek libreki erabiltzen zituzten kaleak eta plazak gaur egun arriskuz beterik sumatzen dira (Tonucci, 2013); ondorioz, haurrei, eurentzat espresuki diseinatutako eremu itxi eta ultra babestuetara mugatzen zaie jolasa; askotan, gainera, ordainpeko aisialdi- taldeetara eta gidatutako kirol-jardunetara eta akademiatar bideratzen dira eskolaz kanpoko orduak.

Pandemiak ekarritako itxialdian haur eta nerabe asko eta asko euskara entzun eta praktikatu ezinik geratu dira, neurri handi batean eskola eremuak soilik eman ohi baitie haur horiei euskaraz aritzeko aukera. Gainera, aisialdi antolatua ere etenda egon da denbora luzez. Ondorioz, eskolaz kanpoko euskarazko jarduerak ere desagertu egin dira haur askorentzat.

“Osasun krisiari aurre egiteko neurri aldakorrek –udalerrien itxiera perimetrala, etxeratze-agindua, elkarretaratzeko mugak, tabernen ordutegi murrizketak, etab.-, gazteen bizitza hankaz gora jarri dute. Hala, etxeak eta ikasketa eremuak inoiz eta protagonismo handiena bereganatu dute gazte askoren bizitzetan.

⁸ Lokaletan nahiz etxeetan edota logeletan (Feixa 2005), alegia.

⁹ Ez da ahaztekoa egungo gazteen agendak beteta egoteak ere eragina duela kaleko presentzia jaitsi izanarekin (Hernández García eta Santamaria Barinagarrementeria 2021).

Unibertsitateko ikasle batek adierazi bezala, pandemia garaian unibertsitatea izan da berarentzat adinkideekin sozializatzeko ia espazio bakarra. Hala, gazteak beraien garapenerako horren garrantzitsua duten aisialdi edo, zehatzago esateko, aisia-gune gabe gelditu dira. Gaur desagertu zaie, aktibismoa murriztu, kultur eta kirol jarduerak gutxitu. Eta horrek denak harreman sarea aldi baterako zeharo murriztu die. Lagun intimoenez harago, hilabetez egon dira ezagun asko ikusi eta jende berria ezagutu gabe.”

(Goirigolzarri Garaizar 2021, 72. or.)

Esan bezala, globalizazioak eta merkantilizazioak bultzatutako hiri eredu estandarizatu berriek mendebaldeko bizigune gehienetan antzeko ondorioak sorrarazi dituzte. Lurralde eta gizarte bakoitzaren berezitasunek ezberdindu egiten dute ondorio horien eragiteko modua; Euskal Herrian ere, ondorio horietako asko identifika daitezke. Gizartearen, kokapenaren eta biziguneen tamainaren arabera, bereizketa bat egitea komeni da ezaugarri amankomunenak bilatu ahal izateko. Bereizketa nagusiak bi dira: bata, Euskal Herriaren ipar eta hego aldeko errealitateak eta, bestea, hiri inguruko edo landa lurretako herriak. Ardatz horien arabera, espazio publikoa antolatzeke eta erabiltzeko moduetan desberdintasun esanguratsuak ikus daitezke (ohiturak, ordutegiak...).

Azken 30 urteetan kaleko hizkuntzen erabilera eta hiri espazioen eraldaketen arteko erlazioa ezagutu ahal izateak azterketa eta ikerketa sakonagoa eskatzen du, gaiaren konplexutasuna eta eragiten duten aldagai aniztasuna dela-eta. Faktore horien artean arrazoi politikoak, sozialak eta ekonomikoak daude, eta horiek guztiak giza-harremanekin loturik daude eta, baita, bizitzeko erabiltzen dugun espazioaren morfologiarekin eta moduekin ere.

2.4 ADIERAZLE SOZIOLINGUISTIKOAK

Globalizazioaren eraginez guztiz eraldatzen ari den mundu honetan, hizkuntzen arteko harremanak, hizkuntzekiko jarrerak eta politikak, eta hizkuntza-komunitateen biziraupenerako baldintzak ere, ez dira duela 30-40 urtekoak. Besteak beste, lurralde arteko mugikortasuna erraztu eta handitu da, eta horrek kultur arteko harremanak ugaritzea eta areagotzea ekarri du.

[EAEEn, esaterako.] “euskara, gaztelania eta ingelesa albo batera utzita, 4.000 hiztun potentzialetik gora izan ditzaketan hamar hizkuntza-komunitate aurreikusi dira: (1) galegoz mintza daitekeen komunitatea (jaioterria Galizian), (2) arabieraz edo amazigeraz hitz egin dezakeena (jatorria Marokon eta Aljerian), (3) errumanieraz mintzo daitekeena (jatorria Errumanian), (4) katalana (jaioterria Katalunian, Valentzian edo Balear Uharteetan), (5) portugesa (jatorria Portugalen edo Brasilen), (6) mandarin txinera edo kantonera (jatorria Txinan), (7) frantsesa (jatorria Frantzian), (8) wolofera, fula edo serer hizkuntzak (jatorria Senegalen), (9) Jorubera, Igboera edo Hausa hizkuntzak

*(jatorria Nigerian) eta (10) urdu edo punjabera hizkuntzak
(jatorria Pakistanen)”*

(Aierdi et al. 2021, 36. or.)

Ingurune digitalaren hedapenak, hizkuntza-teknologiaren garapenak edota sare sozialen fenomenoek aurrez aurrekoak ez diren harremanak indartu dituzte, eta bestelako harreman motak hauspotu dira. Eremu digitalaren errealitate berrian, gainera, erdaren erabilera da nagusi:

“Euskararen eremu osoan Interneteko gizarte-sareetan gehien erabiltzen diren hizkuntzak gaztelania eta frantsesa dira: gaztelania EAEn eta Nafarroan eta frantsesa Iparraldean (...) Erabiltzaileen % 81,8k gaztelania/frantsesa erabiltzen du euskara baino gehiago.”

(Eusko Jaurlaritza et al. 2019, 58. or.)

Testuinguru horren aurreko kezka hori ez da Euskal Herrikoa bakarrik. Hainbat estatu-hizkuntza ere arduratuta agertu dira, globalizazioaren eta, batez ere, ingelesaren nagusitasunaren ondorioz, beraien hizkuntzen presentzia eta erabilera apaltzen ari baita, etengabe (Crystal, 2003; Lo Bianco, 2014; Calvet, 2017)¹⁰.

Munduko hizkuntza gehienak arriskuan edo egoera zaurgarrian aurkitzen dira. Azken urteetan hizkuntza aniztasunaren galera handia gertatu da, eta, aditu gehienek arabera, aldaketa esanguratsurik ezean, hurrengo hamarkadatan hizkuntza-galera asko areagotuko da:

“Language diversity is under threat. While each language is subject to specific social, demographic and political pressures, there may also be common threatening processes. We use an analysis of 6,511 spoken languages with 51 predictor variables spanning aspects of

¹⁰ Hona ekarri ditugu Frantziak, Espainiak eta Alemaniak beraien estatu hizkuntza sustatzeko hartu dituzten erabakien zenbait erreferentzia:

- La stratégie internationale de la France pour la langue française et le plurilinguisme a été dévoilée, par le président Emmanuel Macron le 20 mars 2018, lors d'un discours à l'Académie française: https://www.diplomatie.gouv.fr/IMG/pdf/21_03_transcription_du_discours_du_president_de_la_republique_a_l_institut_de_france_cle8b8911.pdf
- 'El español, lengua global', una estrategia de Estado para hacer del idioma un instrumento de oportunidad para toda la comunidad hispanohablante: https://www.lamoncloa.gob.es/serviciosdeprensa/notasprensa/mecd/Paginas/2018/240118espanol_lengua.aspx
- The German language in Europe. On 8 October 2020 in Berlin, the president of the Goethe-Institut Klaus-Dieter Lehmann opened a conference series of the Goethe-Institut's European network Deutsch on the topic of multilingualism: <https://www.goethe.de/en/uun/pub/akt/22005655.html>

population, documentation, legal recognition, education policy, socioeconomic indicators and environmental features to show that, counter to common perception, contact with other languages per se is not a driver of language loss. However, greater road density, which may encourage population movement, is associated with increased endangerment. Higher average years of schooling is also associated with greater endangerment, evidence that formal education can contribute to loss of language diversity. Without intervention, language loss could triple within 40 years, with at least one language lost per month.

To avoid the loss of over 1,500 languages by the end of the century, urgent investment is needed in language documentation, bilingual education programmes and other community-based programmes."

(Bromham et al. 2022, 163. or.)

UNESCOren arriskuan dauden munduko hizkuntzen azken atlasak hizkuntza zaurgarrien zerrendan du euskara, kalteberakoen artean, alegia.

"The Basque language is probably the best-known language isolate, or single-language family, as well as one of the most widely recognized minority languages in the world. It is one of the languages that are labelled 'vulnerable' in the current Atlas."

(Salminen 2010, 35. or.)

Aipagarria da azken 50 urteetan euskararen biziberritze-prozesuak izan duen garapena, alor desberdinetan erabaki garrantzitsuak hartu baitira (corpusa, hezkuntza, hedabideak, administrazioa, ...):

"Basque is one of the oldest European languages, and its origin is unknown. It is spoken on both sides of the border between France and Spain. After having gradually declined for centuries, at the beginning of the 21st century it is still alive. And as if just surviving were not enough, the language has actually made (and continues to make) serious headway towards becoming ever stronger and more dynamic, thanks to a 50-year process that has brought about what could be termed the "contemporary flourishing of the Basque language"

(Martínez de Luna 2015, 225. or.)

Hala eta guztiz ere, Euskal Herria ez da soziolinguistikoki homogenea. Horren argigarri dira lurralde bakoitzeko euskara gaitasunaren datuak, esaterako. VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (Eusko Jaurlaritza et al., 2019), Gipuzkoak du euskaldun-pisurik handiena, 16 urtetik gorako biztanleen % 51 baita euskalduna. Jarraian dator Bizkaia, % 28ko euskaldun proportzioarekin. Euskaldunak % 21 dira

Ipar Euskal Herrian, eta % 19 Araban. Azkenik, Nafarroa Garaiko 16 urtetik gorako biztanleen artean, % 13 da soilik euskalduna.

Erabilera, hain zuzen, kontu jakina da batez ere euskal hiztun-kopuruarekin eta hizkuntza-ohiturekin dagoela lotuta. Hiztunak behar dira elkarrizketak euskaraz izan daitezen, baina azpimarratu behar da euskaldunen proportzioa (edo ezagutza-indizea) eta euskararen kaleko erabilera-indizea ez direla zuzenean alderagarriak. Sarritan egiten da alderaketa hori, baina ez da guztiz zuzena. Ezagutza, jasotzen den moduan, aitortua eta indibiduala da, eta kale-erabilera, ordea, behatua eta kolektiboa. Aldeak alde, esan behar da korrelazio handia dagoela: euskal hiztun kopurua handien dagoen eremuetan jaso ohi da kale-erabilerarik altuena, eta alderantziz (Altuna 2002; 2018).

Bi indizeen arteko gorabeherak sakonago aztertze aldera, komeni da alde kuantitatiboari ez ezik, alderdi kualitatiboari ere erreparatzea. Gaur egungo euskal hiztunaren profila ez da orain dela 30-40 urtekoaren berdina. Orain askoz ugariagoak dira euskara nolabait jakin bai, baina erdaraz (frantsesez edo gaztelaniaz) hobeto moldatzen direnak. Izan ere, gaur egun haur eta gazte euskaldunen gehiengoak bigarren hizkuntza du euskara—eskolatik jaso—, orain artean ez bezala. Hiztun horietako askok, praktikan, erdaraz aritzeko erraztasun handiagoa dute, eta, esan gabe doa, horrek zuzenean eragiten du hizkuntza-hautuan eta euskararen erabileraren indizean.

“Euskaldunen erraztasuna aldatu egin da 1991tik hona. Duela 25 urte euskal elebidunen eta erdal elebidunen ehunekoa nahiko antzekoa zen (% 34,6 versus % 37,8). Gaur egun, ordea, erdal elebidunen ehunekoa 18,5 puntu handiagoa da euskal elebidunena baino (% 26 versus % 44,5)”.

(Eusko Jaurlaritza et al. 2019, 26. or.)

Bestalde, gogoan izan behar da euskaldun ia guztiek dutela gaztelaniaz edo frantsesez hitz egiteko gaitasuna. Hau da, euskaldunen elkarrizketa guztiak (% 100) izan zitezkeen erdaraz. Euskaraz aritzeko gehienezko muga, ordea, % 100 horren oso azpitik dago, aski baita solaskide batek euskaraz ez jakitea erdaretara jotzeko. Esandako hau begi-bistakoa da, baina komeni da gogoan izatea. Aipatu bezala, gainera, ezagutzaz gain, badira erreparatu beharreko beste baldintza batzuk. Testuinguru sozial eleaniztun batean, ezagutzak ez du hizkuntzaren erabilera bermatzen, hizkuntza erabiltzeko aukera baino ez baitu sortzen (Vila i Moreno 2021, 26. or.) edo eskaintzen (Ramallo 2020, 245. or.).

Azkenik, aipatu behar da euskal hiztunek beste erabateko aldagaien eragina ere nozitu dezaketela; esate baterako, harremanak eraikitze orduan ezarritako hizkuntza-ohiturak, batzuen edo besteen aurrean azaleratzen diren zenbait aurreiritzi edo ingurunean antzematen diren hizkuntza-arau sozialak. Horiek guztiek ere, hiztunek hizkuntzarekiko duten jarrerarekin batera, badute eragina hiztunek egiten duten hizkuntzen hautuan.

2.5 HIZKUNTZEN ERABILERA DATUEN IRAKURKETA

Erabilerak izaera poliedrikoa du, ertz asko ditu. Neurketa batetik besterako kale-erabileraren joera alda daiteke, eta fenomenoaren konplexutasunak ez du samurtzen aldaketa hori zer faktorek (edo faktore-konbinaziok) eragin duen asmatzea. Horregatik, ez da komeni irakurketak datu isolatuetara edo "igo/jaitsi" kontzeptuetara mugatzea, baizik eta ikuspegi diakronikoz egitea. Hori horrela, emaitzen gorabehera puntualei baino, joerei erreparatu behar zaie, eta, batez ere, joera horien jarraikortasunari. Garrantzitsua da emaitzok ikuspuntu horretatik aztertzea, azaleko interpretazioetan erori gabe. Ez dezagun hamarren gutxiren igoera edo jaitsiera puntuala neurritz gaindiko arrakasta edo porrot gisa hartu.

Horregatik da garrantzitsua neurketak maiztasun jakin batekin errepikatzea, horrela lortzen baita egoera estatikoetatik harago, bilakaeraren informazioa jasotzea. Esan daiteke datuak lauzpabost urteko maiztasunarekin jasotzea, etenik egin gabe, ezinbesteko baldintza dela eboluzioaren interpretazio egokia eta ondo oinarritua egiteko.

3 IKERKETAREN IBILBIDEA

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketak ibilbide luzea egin du Euskal Herrian. Lehen edizioa 1989an burutu zen, eta, 2021. urtean, zortzigarren edizioko datu-bilketa egin zen. Ondorioz, ikerketa-lan honi esker, azken 30 urtetan hizkuntzek Euskal Herriko kaleetan izan duten (ahozko) presentzia aztertu da.

Erabilera neurtzeko metodoa Siadeco Ikerketa Taldeak sortu zuen, Iñaki Larrañaga (2021ean zendu zen) soziolinguista aitzindariaren gidaritzapean. Garai hartan, hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak jaso ziren estreinakoz EAEn, 1981eko zentsuaren bidez. Datu horiek egoera soziolinguistikoa deskribatzeko nahikoa ez zirela iritzita, 1983. urtean, Kale Erabileraren Neurketa metodologia sortu zuten, eta Gipuzkoako udalerri guztietan egin zituzten (Larrañaga, 1986).

Lehen esperientzia horien ostean, Euskal Herriko neurketaren lehen eta bigarren edizioak bideratu zituen Euskal Kultur Batzordeak (EKB) 1989an eta 1993an. Geroztik, beste zazpi aldiz errepikatu du Soziolinguistika Klusterrak (aurrez SEI Elkarteak): 1997, 2001, 2006, 2011, 2016 eta 2021¹¹. Hogeita hamar urtetako esperientzia metatuarekin, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dago.

3.1 BILAKAERA METODOLOGIKOA

Ikerketaren edizio guztiek oinarri metodologiko bera dute, baina, neurketa batetik bestera, hobekuntzak egin dira, ikerketa-emaitzen sendotasuna eta zorroztasuna handitzeko. Moldaketa nagusiak laginketa-ereduan eta behatutako aldagaietan egin dira. Atal honetan, aurrez egindako aldaketen berri emango da, eta txosteneko 5. puntuan azalduko dira 2021eko edizioaren ezaugarri metodologikoak.

Laginketa-ereduari dagokionez, 1989ko edizioan 10.000 biztanletik gorako udalerrietan egin zen neurketa; bigarren ediziotik laugarrenera bitartean (1993-2001), 5.000 biztanletik gorako udalerriak eta 5.000tik beherako udalerri guztien % 10¹² behatu ziren¹³; 2006 eta 2011n, aurreko laginketa-eredua oinarri hartuta optimizatu zen behatutako udalerri kopurua; eta 2016ko edizioan, ahalik eta

¹¹ Azken urteetako edizioak zentsu- eta errolda-urtearekin bat datoz.

¹² Biztanle gutxiagoko udalerri horien % 10a aukeratzeko, euskararen ezagutzaren arabera eta herri tamainaren arabera tipologiak kontuan hartu ziren. Ipar Euskal Herrian euskaldunen portzentajerik ezagutzen ez denez, ez zen metodo hori aplikatu.

¹³ Ipar Euskal Herrian, 1.000 biztanletik gorako udalerriak behatu ziren 2001eko neurketan.

eskualde gehieneko datu adierazgarriak lortu ahal izateko laginketa-eredua osatu zen¹⁴.

Behatutako aldagaiei dagokienez, hasieran, erabilera-indizeak adin-taldeka neurtu ziren (1989 eta 1993¹⁵). 1997ko edizioan, sexua eta haurren presentzia aldagaiek gehitu zitzaizkion datu-bilketari (hiru aldagai nagusi horiek mantendu ziren 2001, 2006, 2011 eta 2016ko edizioetan).

Halaber, aipagarria da 2016ko neurketan gaztelania eta frantsesa hizkuntzak bereizi zirela. Ordura arte, hizkuntzak hiru multzotan bereizten ziren: euskara, gaztelania/frantsesa eta beste hizkuntzak. 2016an, berriz, lau multzo behatu ziren: euskara, gaztelania, frantsesa eta beste hizkuntzak.

Egokitzapen horiek burututa ere, edizio guztietako datuak konparagarriak izan daitezkeen egin da lan, eta beharrezko analisi estatistikoak egin dira hobekuntza edo aldaketa horien eragina ebaluatzeko.

Gaur egun, ikerketa hau ezinbesteko erreferentzia bilakatu da, euskararen egoera deskribatzeko edo lan-ildoak zehazteko, hizkuntza-politikako arduradunentzat, ikertzaileentzat edota euskararen aldeko lanean dihardutenentzat, esaterako. Ikerketak onarpenera eta aintzatespen zabala lortu du.

Gainera, nazioartean interes handia sortzen duen ikerketa da:

- 2013an gida metodologikoa¹⁶ argitaratu zuen NPLD erakundeak¹⁷.
- Hainbat kongresutan aurkeztu da:
 - Primer Congr s Internacional Revitalizaci  De Lleng es Ind genes I Minoritzades - Barcelona-Vic, 19-21/04/2017

¹⁴ Emaizak ez dira fidagarriak udalerriko. Horretarako, interesa duten udalerriek berariaz eskatu behar diote Soziolinguistika Klusterrari udalerri mailako neurketa egiteko. Behin eskaria eginda, herriko errealitatea kontuan hartuz diseinatzen da bertako neurketa. 2021. urtean 41 udalek edota mankomunitatek egin zuten eskaera, eta, horiei esker, 57 herritako kale-erabilerari buruko datu adierazgarriak lortu dira.

¹⁵ Bigarren edizio horretan, talde tamaina ere neurtu zen J.L. Alvarez Enparantza "Txillardegia"-ren eredu matematikoa aztertzeke (Alvarez Enparantza Txillardegia 2002). Hau da, hitz egiten ari direnak bikoteka, hirukoteka, laukoteka, boskoteka edo talde handiagoan doazen behatu zen. Horrela, eremu batean *matematikoki espero daitekeen erabilera* edo *erabilera isotropikoa* kalkulatzeko eredua proposatu zuen. Gaian sakontzeko, ikus (Alvarez Enparantza, Txillardegia, 2001) eta (Isasi & Iriarte, 1998).

¹⁶ Hemen kontsulta daiteke: <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/hizkuntza-erabilera-behaketa-bidez-neurtzeko-gida-metodologikoa/>

¹⁷ Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sarea (NPLD) Europa mailako hizkuntza-politikaren eta hizkuntza konstituzionalen, eskualdekoen eta estatu txikien plangintzaren arloan lan egiten duen Europako sarea da. NPLDk bazkide gisa barne hartzen ditu gobernu nazionalak, eskualdekoak, unibertsitateak eta elkarteak. Helburu nagusia da Europa mailan sentsibilizatzea hizkuntza-aniztasunaren garrantziaz eta Europa osoko gobernu, politikari, profesional, ikertzaile eta adituen arteko praktika onen trukea erraztea. Soziolinguistika Klusterra kide elkartua da (associated member). Informazio gehiagorako: <https://www.npld.eu/>

Metodología para medir el uso lingüístico: VII. Medición del uso lingüístico en el País Vasco (Olatz Altuna Zumeta)

- 1st Conference on Frisian Humanities¹⁸ - Leeuwarden, Netherlands. 23-26/04/2018

Measuring the use of languages in the streets of the Basque Country (Asier Basurto Arruti)

- XIII Congreso Internacional de Lingüística Xeral (CILX2018)¹⁹ - Vigo, 13-15/06/2018

Medición del uso de las lenguas en la calle (Olatz Altuna Zumeta)

- 'Evaluation, Impact and Outcomes in working with children and young people in regional and minority language revitalisation efforts' workshop²⁰ - Cardiff, Wales. 26/02/2019

Language Use Observation Survey Methods (Asier Basurto Arruti)

- Zenbait artikulu zientifiko argitaratu dituzte nazioarteko aldizkariak (Altuna eta Urla 2013; Altuna Zumeta 2013):
 - Altuna Zumeta, Olatz. «Observacions de l'ús de la llengua al País Basc: dues dècades mesurant l'ús oral al carrer», Revista de Llengua i Dret, núm. 60, 2013, p. 111-124. DOI: 10.2436/20.8030.02.32
 - Altuna, O. & Urla, J. (2013). The Basque Street Survey: Two Decades of Assessing Language Use in Public Spaces. International Journal of the Sociology of Language, 2013 (224), 209-227. <https://doi.org/10.1515/ijsl-2013-0061>
- Eskoziako eta Kataluniako ikerlariak egokitzapenak landu izan dituzte, esaterako (Birnie 2018; Plataforma per la Llengua 2021):
 - Birnie, I. (2018). Gaelic language in public domains. In M. MacLeod, & C. Smith-Christmas (Eds.), Gaelic in Contemporary Scotland: The Revitalisation of an Endangered Language (pp. 128-140). Edinburgh University Press. <https://pureportal.strath.ac.uk/en/publications/gaelic-language-in-public-domains>
 - Plataforma per la Llengua 2021eko ekainean aurkeztu zituen Valls udalerriko ikastetxeetako jolaslekuetan egindako

¹⁸ https://www.fryske-akademy.nl/fileadmin/inhoud/beelden/homepage/Nijs_en_aginda/Evenementen/Conference_on_Frisian_Humanities/Program_1st_CFH_2018.pdf

¹⁹ <http://cilx2018.uvigo.gal/>

²⁰ <https://wiserd.ac.uk/publication/evaluation-impact-and-outcomes-in-working-with-children-and-young-people-in-regional-and-minority-language-revitalisation-efforts/>

neurketaren emaitzak²¹; 2022ko martxoan, berriaz, metodologian sakontzeko formakuntza jaso zuten Soziolinguistika Klusterraren eskutik²².

Ahozko erabilera kuantifikatu nahi duten ikerlarientzat eta, bereziki, hizkuntza gutxiagotua duten komunitateei zein hizkuntza-aniztasuneko egoerak aztertzeko erabat baliagarria da euskararen egoera diagnostikatzeko hain baliagarria zaigun tresna hau (Altuna eta Basurto 2013).

3.2 GARAPEN TEKNIKOAK

Azken urteetan, gainera, hobekuntza eta garapen teknikoak ere egin zaizkio metodologiari. Bi berrikuntza nagusi aipatuko dira lerro hauetan.

Alde batetik, 2011. urtean, lagin-akatsa kalkulatzeko eredu matematikoa sortu zen (Yurramendi eta Altuna 2009; Yurramendi et al. 2013). Horrela, neurketen lagin-akatsa kalkulatu baloratzen da erabilera-datuaren adierazgarritasuna²³.

Beste alde batetik, erabilera-datuak telefono mugikorraren bidez jasotzeko aplikazioa sortu zen. Garapen horren bidez urrats esanguratsua eman zen datu-bilketari dagokionez. Lehenik, neurtzaileak kalean behaketan ari direnean diskrezio handiagoz jardutea ahalbidetzen duelako. Bigarrenik, datuak zuzenean digitalki jasotzean operatibizazioa eta datu-basearen elikatzea errazten direlako. 2011. urtetik aurrera erabili izan da gailua, biztanleria txikiko herrietan bereziki. 2021eko edizioan, *neurgailua* izeneko aplikazioarekin jaso dira datuak behatutako udalerrri guztietan (txosteneko 5. atalean azalpen gehiago).

Aipagarria da, halaber, hizkuntzen erabileraren kale-neurketan erabiltzen den ikerketa-metodologia behar berezietara egokitzeko ahalegina egin duela Soziolinguistika Klusterrak azken urteetan. Euskararen egoera soziolinguistikoaren diagnosi zehatzagoak egin nahian, esparru desberdinetako eskaerak jaso dira, eta horien ondorioz, gune berezietako neurketak ere bideratu dira:

- Gune mugatuetako neurketak: leku itxietan egiten diren neurketak. Adibidez, lantokietan eta ikastetxeetan.
- Eskolaz kanpoko kirol jardueretan neurketak: gaztetxoenen aisialdi eremuko hizkuntza-erabilerak gertuagotik aztertzea ahalbidetzen digute.
- Herri txikietan neurketak, euskara-gaitasuna aldagai moduan txertatuta: euskaldunen arteko hizkuntza-erabilerak zer-nolakoak diren jakiteko aukera eskaintzen digute.

²¹ <https://www.plataforma-llengua.cat/que-fem/noticies/5039/sengega-un-pla-daccio-per-augmentar-lus-social-del-catala-entre-els-joves-de-valls>

²² <https://soziolinguistika.eus/eu/2022/03/01/plataforma-per-la-llenguako-kideek-euskararen-gaineko-ikerketa-eta-eskuhartze-proiektuak-ezagutzeko-egonaldia-egin-dute/>

²³ Ikus "Laginaren kalkulurako tresna": <https://soziolinguistika.eus/eu/lagina/>

- Hitanoaren kale-erabilera behatzeko neurketak: herriko hizkuntza-erabilera neurtzearekin batera behatzen da hitanoaren kale-erabilera.

4 IKERKETA HELBURUAK

Hiru helburu nagusi izan ditu 2021eko edizioak:

- **Euskal Herriko kaleetako hizkuntza-erabilerari buruz, datu enpirikoak eskuratzea.**
- **Euskararen kale-erabilerari buruzko datuak aztertzea eta interpretatzea.**
- **Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera ezagutaraztea,** euskararen biziberritze-prozesuari begira hausnarketarako, hizkuntza-politikak erabakitzeko eta hizkuntza-plangintza diseinatzeko balio dezan.

Ikerketa-lan honek unean uneko baldintza sozialak eta soziolinguistikoak biltzen ditu. Alegia, erabilera aztertzeko, kaleko hitzunei erreparatzen zaie, beren adina nahiz generoa kontuan izanda. Halaber, osaera desberdinetako elkarrizketa-taldeen hizkuntza ere aztertzen da: esaterako, elkarrizketetan haurrek parte hartzen badute, nola aldatzen da hizkuntza-erabilera? Edota adinkide bereko elkarrizketetan? Horiei guztiei buruzko gogoetak egiteko aukera ematen dute datuek.

Euskal Herriko neurketaren zortzigarren edizioa da honako hau. Erabilera-datuak lauzpabost urteko maiztasunarekin jaso izanak argazki dinamikoa eskaintzen du. Horrela, erabileraren bilakaera katebegiz katebegi jaso da, eta ondo oinarritutako interpretazioak egin daitezke. Hau da, gizartearen eraldaketaren isla ere badira txosten honetan aurkezten diren datuak.

2020tik aurrera, COVID19aren pandemiaren eraginpean, are nabarmenagoa izan da aldaketa-giroa. Oro har, pandemiak nabarmen eragin du kaleko giroan eta herritarren arteko zuzeneko harremanetan. Kutsatzeko beldurrak, udalerrien itxiera perimetralek, etxeratze-aginduek, elkarretaratzeko mugek, tabernen ordutegi murrizketek eta abarrek herritarren bizitza aztoratu dute. Edizio honetako datuak ez dira aurreko edizioetako egoera bereberean jaso, baina gaur egungo gizartearen isla izan, badira.

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketaren Euskal Herriko edizioei esker, baliozkotasun handiko datu-multzo objektiboa eskaintzen da, azterketa demolinguistikoetarako. Gainera, erabilera aitortuen eta behatuen arteko aldeak aztertzeko aukera ematen du (Iurrebaso 2012), baita hizkuntza-gaitasunaren eta –erabileraren arteko tartearen bilakaera aztertzeko ere (Iurrebaso 2021). Finean, estrategiak balioztatze edota birpentsatzeko beharraz ohartarazteko balio du.

5 METODOLOGIA

Ikerketa honen oinarrian dago behaketa bidez hizkuntzen erabilkera neurtzeko metodoa, XX. mendeko 80ko hamarkadan sortu eta ordutik hona garatu eta hobetu izan dena, lehenago aipatu bezala. Aipatutako metodoaren ezaugarri nagusiak "Hizkuntza erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa" gidan jasota daude (Altuna eta Basurto 2013). Orrialde hauetan azaltzen dira erabilitako metodoaren zenbait ezaugarri eta ikerketa honetan izan duen aplikazio zehatza.

5.1 IKERGAIAREN DEFINIZIOA ETA IKERKETA DISEINUAREN IZAERA

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketan hizkuntzen **ahozko erabilerari** buruzko datu enpirikoak jasotzen dira. Kaleetan entzundako elkarrizketetatik atera da informazioa. Beraz, **espazio irekietan** solasean ari ziren **hiztunen jarduna** behatuz jaso dira kale-erabilerari buruzko 2021. urteko datuak, aurreko edizioetan bezalaxe.

Emaitzek Euskal Herriko kaleetako euskararen erabilera kuantifikatzen dute, hizkuntzaren zuzentasuna edota egokitasuna ebaluatu gabe. Hau da, ez da erabilitako hizkeraren kalitatea aztertu, ezta euskalkien erabilera ere. Ikerketa deskriptiboa da honako hau, beraz, "fenomeno baten arlo desberdinen ezagupen zehatza egin nahi" delako (Juaristi Larrinaga 2003, 35. or.).

5.2 IKUSPEGI METODOLOGIKOA

Ikuspegi kuantitatiboa du ikerketak, eta, kaleko euskararen erabilera-maila neurtzeko, behaketa zuzenaren teknika darabil. "Bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da" (Altuna eta Basurto 2013, 28. or.).

5.2.1 Ikerketa-teknika

Esan bezala, **behaketa zuzenaren bidez** eskuratu dira hizkuntzen erabilerari buruzko datuak.

"Behaketa Zuzena izenarekin ezagutzen dugun teknikaren helburua da gizakien portaerak inolako manipulaziorik gabe era sistematiko eta kontrolatuan begiratzea, eta hortik ikerketarako garrantzitsua den informazioa eskuratzea. Bitartekorik gabe, hau da, zuzenean egiten den behaketa delako hartzen du teknika honek behaketa zuzena izena."

(Juaristi Larrinaga 2003, 195. or.)

Teknika horrek, ezinbestean, **diskrezioa** eskatu du. Hau da, hiztunak behatuak izan direla ohartu gabe jaso da hizkuntza-praktikei buruzko informazioa. Ez dute, behintzat, elkarriketa-hizkuntza behatzen ari garenik jakin. Horretarako, lagungarri suertatu zaie neurtzaileei datuak Neurgailuan jasotzea, mugikorrekoko aplikazio batean, alegia.

Ikerketa honetan, ez dira datu pertsonalak tratatzen edo erabiltzen. Kale-neurketan, modu anonimoan biltzen da informazioa. Kaleko elkarriketen hizkuntza eta horietan parte hartzen duten solaskideen begi bistako ezaugarriak jasotzen dira. Ez da jasotzen pertsona horiek identifika ditzakeen daturik edota elkarriketa horien edukiaren gaineko inolako daturik. Beraz, datu horien tratamendua ez dago Datu Pertsonalak Babesteko legediaren menpe.

5.2.1.1 Datuak biltzeko irizpideak

Elkarriketa izan da behaketa-unitatea: kalean dagoen pertsona bat edo gehiagoren arteko solasaldia²⁴. Neurtzaileei zuzendutako edo neurtzaileen arteko elkarriketak ez dira jaso. Halaber, neurraldi berean, solaskide-talde bera hizkuntza berean behin baino gehiagotan entzun den kasuetan, behin bakarrik jaso da praktika hori²⁵.

Hain zuzen, kalean entzundako elkarriketa horiek **zein hizkuntzatan** gertatu diren jaso dute neurtzaileek (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo beste hizkuntza batean). Gainera, elkarriketa horietan parte hartu duten solaskideen ezaugarriak bildu dira, betiere zuzeneko behaketa bidez pertsonen egotzi diezazkiekegunak, inori ezertxo ere galdetu gabe: **sexu-generoa** (emakumezkoa edo gizonezkoa den²⁶, alegia) eta **adina** (haurrak, gazteak, heldu gazteak, heldu nagusiak eta adinekoak²⁷). Azkenik, behatutako elkarriketetan, **hiztun aktiboa haurra den edo ez** ere jaso da.

Elkarriketa oro **hizkuntza bakar batean** sailkatu da, horrela diseinatu zelako ikerketaren metodologia hastapenetik eta datuen konparagarritasuna ez galtzeko, besteak beste. Dena den, gero eta ohikoagoa da elkarriketa elebidunak izatea edota

²⁴ Pertsona bakarra behatu den elkarriketak ere jaso dira: mugikorrarekin hitz egiten entzun diren hiztunak, txakurrarekin hizketan doazenak, atarietako interfonotik...

²⁵ Neurraldi horretan, solaskide-taldean aldatetak egon badira (bat joan edo bestea etorri, esaterako), praktika berri gisa jaso da. Edo, neurraldi horretan, solaskide-talde horrek hizkuntza aldatu badu, praktika berri gisa jaso da hori ere. Elkarriketako solaskideen artean beste batek hitza hartzeak (parte-hartzaile aktiboa edo hiztuna aldatzeak) ez du esan nahi beste elkarriketa bat hasi denik, non-eta ez den hizkuntza aldatzen. Aitzitik, solaskide-talde berbera hizkuntza berean hizketan topatu bada, baina beste neurraldi batean, jaso egin da.

²⁶ Solaskidea emakumezkoa edo gizonezkoa bezala sailkatzeko irakurketa soziala da oinarri, ezin da jakin egiazki solaskidea kategoria horiekin identifikatzen den ala ez. Bestalde, "ez-bitarra" kategoria ez da jaso. Kontuan hartu behar da behaketa-teknikaren ezaugarri behinena hiztunari galderarik ez egitea dela.


²⁷ Hona hemen hiztunak kategoria bakoitzean sailkatzeko jarraitu diren irizpideak: haurrak (2-14 urte), gazteak (15-24 urte), heldu gazteak (25-39 urte), heldu nagusiak (40-64 urte) eta adinekoak (65 urtetik gora).

solas-jardun berean hizkuntza ezberdinak era nahasian erabiltzea; ikertu beharreko fenomenoak dira horiek.

5.2.1.2 Datuak biltzeko prozedura

Datuak, nagusiki, **Neurgailuaren bidez** jaso dira, mugikorreko APP bidez, alegia. Modu horretan, datuak modu diskretuagoan jasotzea ahalbidetu da, eta, unean une, behatu den elkarrizketa kopuruari jarraipen estua egin zaio.

Argazki hauetan ikus liteke neurtzaileek neurgailuan elkarrizketa bakoitzaren ezaugarriak sartzeko baliatzen dituzten pantailetakoko batzuk:



← Elkarrizketa: 1/0

Euskara

	Ema	Giz
Haurrak (2-14)	1	1
Gazteak (15-24)	0	0
Heldu-gazteak (25-44)	0	0
Heldu-nagusiak (45-64)	0	0
Adinekoak (65etik gora)	0	0

Ez / Bai

Haurrak hitz egiten? ☒

EUSKARAZ ERE BAI GAZTELANIAZ ERE BAI

FRANTSESEZ ERE BAI

Oharrak

Neurtzaileek bikoteka bildu dituzte hizkuntzen erabilerari buruzko datuak. Hala eta guztiz ere, bi neurtzaileek Neurgailuarekin izan zitzaketen intzidentziei aurre egiteko, datuak **paperean jasotzeko aukera** izan dute **uneoro**.

Azkenik, bestelako irizpide batzuk ere eman zaizkie neurtzaileei:

- Dudazko kasuak ez jaso.
- Haur jaioberrien presentzia berari zuzenean ari ez bazaizkie ez jaso.
- Neurketa egin aurretik, ibilbidea errepasatu.

5.2.2 Diseinua

Ikerketak lurralde bateko kaleetako hizkuntza-erabilera deskribatu nahi duenez, ikerketaren diseinuak kalean hitz egiten duen edozein pertsona potentzialki behatzeko bokazioa du. Horregatik, Euskal Herriko kaleetan ematen diren baldintza desberdinak kontuan hartu behar dira erabakitzeke zenbat behaketa egin, noiz egin eta non egin.

Lehenik eta behin, udalerrien zerrenda osatu da. Euskal Herriko lurralde guztietako udalerriak, gune soziolinguistiko guztietakoak eta biztanle-kopuru desberdinetakoak hartu dira kontuan. Eraitza fidagarriak eskuratu ahal izateko udalerri hauetan behatu beharreko gutxieneko elkarriketa kopurua aurrez finkatu da.

Udalerri bakoitzean zein kaletan egingo den behaketa diseinatu da. Kale jendetsuenak eta ezaugarri soziologiko desberdineko jendea neurtzeko aukera ematen dutenekin osatu dira herri bakoitzeko behaketa-ibilbideak.

Udalerri eta ibilbide horietan neurtzaileek bi orduko neurraldiak egin dituzte. Bi orduko iraupen hori ikerketaren aurreko edizioetatik finkatuta dago, eta behatzaileek behatuen aurrean diskrezioari eusteko gehieneko iraupen bezala ulertzen da ikerketa honetan. Udalerri bakoitzean behatu beharreko elkarriketa-kopuruaren arabera, aurreikusi da neurraldi-kopurua ikerketaren diseinuan.

Egutegiari eta ordutegiari dagokienez ere, bilatu da, alde batetik, pertsona asko behatu ahal izateko egun eta ordu egokiak izatea; eta bestetik, bizimodu desberdina daramaten pertsonak behatu ahal izateko aukera ematen duen ordutegi-diseinua egitea. Horrez gain, ikerketaren aurreko edizioetatik datorren diseinuarekiko jarraikortasuna bermatu da.

Laginketaren bidez, hautatutako herrietako kaleetan zenbat solaskide entzun behar ziren kalkulatu ahal izan da, akats-tarte onargarri batetik abiatuta. Horrenbestez, gutxieneko solaskide kopuru horiei erantzuteko, herriz herri egokitu da neurketaren diseinua; hau da, herri bakoitzak bere ibilbide eta neurraldi kopurua izan du.

5.2.2.1 Laginketa: hautatu diren udalerriak

Non behatu, ordea, hizkuntza-erabilera? Zein udalerritako kaleetan? Euskal Herriko udalerrien artean, 145 udalerritako lagin bat diseinatu da 2021eko edizio honetan, beren tamaina eta erabileraren bariantza kontuan hartuz.

Laginketa-prozesua hobetu da, Neyman-en Asignazio Optimoaren metodoa erabiliz. Metodo horren bidez, ikerketa baten estimazioaren errorea minimizatzen da, lagin kopuru finko bat aurreikusita.

“Stratified samples are commonly used when supplementary information is available to help with sample design. The precision of a stratified design is influenced by how the sample elements are allocated to strata. Neyman allocation is a method used to allocate sample to strata based on the strata variances and similar sampling costs in the strata. A Neyman allocation scheme provides the most

precision for estimating a population mean given a fixed total sample size."

(Lavrakas 2008)

Metodo horren arabera, taldea zenbat eta handiagoa eta heterogeneoagoa izan, hainbat eta lagin handiagoa beharko du; solaskide gehiago behatu beharko da, alegia.

Ikerketa honetan, metodoa aplikatzeko, bi ezaugarriren informazioa erabili da: udalerrien biztanle-kopurua eta euskararen erabileraren aurreikuspena²⁸. Behin aurreikuspen horiek eginda, behatu diren udalerrien zerrenda osatzeko, lau irizpide erabili dira²⁹:

Udalerri bereziak	57	Udalerri mailako neurketa egiteko eskaera egin dutenak
Udalerri historikoak	96	Kale Neurketaren 2011 eta 2016 edizioetan behatu direnak
Udalerri behartuak	23	Estratuak osatzeko beharrezkoak direlako
Udalerri gehigarriak	16	Neyman-en banaketa faktorean pisua dutelako

Irizpide horien arabera, neurketak 142 udalerritan egitea proposatu zen, 2021eko maiatzean. Azkenik, proposatutakoez gain, beste hiru udalerri neurtu dira: Urkabustaiz eta Zuia, laginketa egin ondoren udalerri mailako neurketa egitea eskatu zelako; eta Antsoain, Eguesen nahikoa elkarrizketa jaso ez zirenez estratu bereko udalerri batekin laginketa indartzea erabaki zelako. Beraz, 2021eko edizioan, guztira, **145 udalerri neurtu dira**:

Lehenengo eranskinean topa daiteke neurtutako herrien zerrenda³⁰.

5.2.2.2 Ibilbideak eta planoak

Lehenengo *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketetako* irizpidea jarraituz, 15.000 biztanletik beherako herrietan ibilbide bat diseinatu da; kopuru horretatik gorakoetan, ordea, 10.000 biztanleko ibilbide bat gehitu da.

Herriko biztanle-kopuruaren irizpide hori aplikatu da, beraz, 88 herritan, bertako ibilbide kopurua zehazteko. Ikerketa honetan horiek guztiak diseinu aldetik "herri arruntak" bezala izendatu dira. Hiriburuek ere diseinu "arrunta" dute, nahiz eta, Hego

²⁸ Euskal Herriko udalerri guztien euskararen erabilera aurreikusteko, 2014-2018 urteen bitartean, Soziolinguistika Klusterrak udalerriko hizkuntzen erabileraren kale neurketak egin dituen herrietan, hori hartu da kontuan estimazio gisa. Hala ez balitz, udalerri bakoitza bere estratuko batez bestekoaren pareko dela estimatu da. Estratu horretan neurketarik ez zegoen kasuetan, udalerraren tipologia berekoen batez bestekoa hartu da estimazio modura.


²⁹ Udalerri batzuk irizpide bat baino gehiago beteko dute.

³⁰ Urretxuren eta Zumarragaren kasuan, erabilera-datuen azterketa batera egingo da, udalen eskariz. Ondorioz, ikerketa honetan, udalerri bakar bat bailiran tratatu dira.

Euskal Herriko hiriburuen kasuan, udaletako teknikariek adostu den ibilbide kopurua, barrutietako edo auzoetako erabilera-datu adierazgarriak eskuratzeko.

Euskal Herriko neurketarekin sinkronizatuta udalerrri mailako hizkuntzen erabileraren kale-neurketa egiteko eskaera egin dute 57 herritako udalek –edota mankomunitatek-. Diseinu aldetik “bereziak” dira horiek, izan ere, udaleko euskara teknikariarekin adostu da bertan neurtu beharreko ibilbide kopurua, herriaren ezaugarriei eta kasu bakoitzean eskuratu nahi diren emaitzen xehetasun mailaren arabera.

Euskal Herrian, guztira, 418 ibilbide neurtu dira. Ibilbide horietako bakoitzaren kalez kaleko deskribapena³¹ eta planoarekin³² fitxa bana osatu da (ikus beheko argazkian). Neurtzaileek uneoro izan dute informazio hori eskura, datuak behar bezala jasotzeko.



³¹ Kalez kaleko deskribapena osatzeko, herriko (barrutiko, auzoko edo zonaldeko) kalerik jendetsuenak eta plaza nahiz parke inguruak erabili dira, ahalik eta jende gehien behatu nahian.

³² Herri txikiak direnen kasuan, gerta liteke kasuren bat planorik gabe gelditu izana.

5.2.2.3 Neurraldien egutegia, ordutegia eta ordu kopurua

IBILBIDE HORIETAKO bakoitzean egin beharreko neurraldiak aurreikusi dira, datuak jasotzeko egun eta ordu zehatzak, alegia. Zehaztapen horiek egitean ere ahalik eta jende gehien eta denetarikoa behatzeko helburua aplikatu da. Gainera, hiztunen kaleko ohiko jarduna behatu nahi izan da. Horregatik, ekitaldi publikoren bat (festa, kultur-ekitaldi, azoka, mobilizazio...) aurreikusia zegoen unetan neurraldiak egitea saihestu da, ohiz kanpo jarduerak ohiz kanpoko hizkuntza-praktika eragin dezaketelakoan.

Hego Euskal Herriko ibilbide arrunt guztietan 6 orduko behaketak egin dira: asteazken arratsaldetan, larunbat goizetan eta larunbat arratsaldetan³³. Ipar Euskal Herrian, berriz, 12 orduz egin da datu-bilketa ibilbide bakoitzean, oro har kalean jende gutxiago ibiltzen dela jakitun izanik; hau da, ibilbide bakoitza bi astez neurtu da seina ordutan astero³⁴.

Neurketa berezietan behatuak izan diren ibilbideek, ordea, ez dute astegunen eta ordutegien patroia jakinik jarraitzen. Udaletako euskara teknikariekin zehaztu dira herri horietako kaleetan jende gehien topatzeko uneak zein diren. Dena den, ibilbide bakoitzeko emaitza estatistikoki adierazgarriak eskuratzeko, gutxienez 12 orduko datu-bilketa egin da; hori izan da irizpide orokorra.

Hori guztia kontuan izanik, 7.637 ordutan egin dira hizkuntza-praktiken behaketak edizio honetan Euskal Herriko kaleetan.

5.3 DATU BILKETA

Datu-bilketa 2021eko irailaren 17an hasi eta urriaren 30ean amaitu zen³⁵. Modu horretan, udazkeneko ordu-aldaketa baino lehenago burutu ahal izan zen jasoketa guztia, argi-orduei ahalik eta etekin gehien ateraz eta neurketa guztiak antzeko baldintzetan egitea bermatuz.

Gainera, pandemiaren hasieratik kalean ibiltzeko eta harremanak izateko osasun- eta lege-baldintza irekienak indarrean zeuden epealdian burutu zen. Irailaren 17tik urriaren 30era kutsatze-datuak baxuak ziren, ez zegoen kalean musukoaren derrigortasunik, ostalaritzan ez zegoen jendea multzokatzeko mugarik ezta ordutegi murriztapenik, ez zegoen herriz-herri mugitzeko debekurik.... Azken hilabeteetako egoerarik onenetarikoa ahalbidetzen zen kale-bizitzarako.

Datu-bilketan zehar, ez da intzidentzia larririk egon. Neurtzaileek kalean gertaera bereziren batekin topo egin dutenean (ekitaldiren bat, manifestazioren bat, ospakizunen bat...), esaterako, neurraldiren bat atzeratu da. Erabaki horiek guztiak ikerketaren zuzendariarekin edota landa-lanaren arduradunarekin hartu dira.

³³ Arratsaldetako neurraldiak 18:00-20:00 bitartean eta larunbat goizeko neurraldiak 11:00-13:00 bitartean.

³⁴ Asteazken eta larunbat arratsaldetako neurraldiak 16:00-18:00 bitartean eta larunbat goizeko neurraldiak 10:00-12:00 bitartean.

³⁵ Zigoitian, lau orduko neurketa egin zen 2021eko azaroaren 6an.

Eguraldia, gainera, lagun izan dela esan daiteke. Egunen batean edo bestean euria egin bazuen ere, oro har, eguraldi ona izan da jendea kalean topatu ahal izateko.

Kaleetan datuak mugikorraren bidez bildu ahala, behatutako elkarrizketa eta solaskide kopuruaren jarraipena egin zen. Kopuru txikia jaso zen kasuetan, datu-bilketa indartzeko neurriak hartu dira.

Orotara, Euskal Herri osoan, **215.396 elkarrizketa** eta horietan parte hartzen ari ziren **603.497 solaskide** behatu dira.

Honakoa da laginaren osaera, lurraldeka:

3. Taula. Behatutako lagina. EUSKAL HERRIA, 2021

Herrialdea	Elkarrizketak (Abs.)	Solaskideak (Abs.)
Araba	15.549	43.269
Bizkaia	69.922	196.093
Gipuzkoa	89.076	249.711
Nafarroa Garaia	29.138	83.225
Lapurdi	8.935	23.300
Nafarroa Beherea eta Zuberoa	2.776	7.899
EUSKAL HERRIA	215.396	603.497

Iturria: Soziolinguistika Klusterra

Inoiz baino ordu gehiago behatu dira 2021eko edizioan (guztira 7.637 ordu). Horri esker, **inoizko pertsona kopururik altuena behatu da**. Behatutako solaskide kopurua kontuan izanda, Euskal Herrian inoiz egin den ikerketa kuantitatibo handienetako bat dela esan daiteke.

5.4 EMAITZEN KALKULU ESTATISTIKOAK ETA HAZTAPENAK

Emaizen adierazgarritasuna kuantifikatzeko beharrezkoa da ikerketaren unibertsoa zehaztea eta ikerketaren dimentsioa kontuan hartzea. Ikerketaren unibertsoa Euskal Herriko kaleetako hiltunak osatzen dute. Mugikortasun handiko eremua da kalea, eta ez dago unibertso hori osatzen duten kideen (are, elkarrizketen) zerrenda ezagutzerik. "Hala bada, ezinbestekoa da laginak erabiltzea; hau da, unibertso osoari buruzko ondorioak ateratzeko, nahitaezkoa da unibertsoaren zati bat ikertzea" (Juaristi 2003, 65. or.). Hori horrela, estimazioz kalkulatu dira hizkuntzen erabilera-datuak.

Estimazio horien akatsa ahalik eta txikiena izan dadin, laginketa hobetu da 2021eko edizio honetan. 5.2.2 puntuan azaldu moduan, Euskal Herriko 145 udalerrietan egin dira neurketak, eta lagina osatu dute 145 udalerri horietako elkarrizketetan parte hartu duten solaskideek.

Neurtu diren udalerrien erabilera-indizeen batez bestekoa ezarri zaie neurtu ez diren udalerrirei. Horretarako, 145 udalerriak multzokatu egin dira:

- Hego Euskal Herrian lurralde bakoitzeko lau ezagutza-tipologia bereizi dira (ezagutza % 0-20; % 20-50; % 50-80; eta % 80-100).
- Ipar Euskal Herrian, berriz, hiru eremu hartu dira kontuan (BAM, Lapurdi barnealdea, eta Nafarroa Beherea eta Zuberoa).

Horrela, tipologia eta eremu bakoitzean neurtu diren udalerrien erabilera-datuen batez bestekoa kalkulatu da, adin-taldearen eta sexuaren arabera. Ondoren, batez besteko horiek aplikatu zaizkie neurtu ez diren udalerriei.

Era berean, udalerri bakoitzean adin-taldearen eta sexuaren arabera behatutako erabilera-indizea udalerri horretako hiztunen arabera haztatu da. Horrela, udalerriz gairikiko erabilera-indizean udalerri bakoitzeko elkarriketen pisua neurrikoa izatea lortu da, hain zuzen, udalerriaren biztanleriaren arabera dagokiona. Ondorioz, lurralde batean udalerri gehiago neurtzen badira, lurralde horretako erabilera-indizearen akats-tartea txikiagoa izango da, lurralde horren erabilera-indizearen pisua lurraldearen biztanle kopuruari dagokiolako.

Udalerrietako emaitzak lurralde edo Euskal Herri mailara eramatean haztapen-faktore bat aplikatzen zaie. Faktore hori udalerri bakoitzak zentsu gaurkotuan duen biztanle-kopuruaren arabera da.

Udalerrietako erabileraren neurketan (eta hiriburuetakotan) ez da haztapenik egin, bertako kaleko errealitatearen isla jasotzeko. Hori da ikerketaren helburua, kalean topatzen diren hiztunen erabilera aztertzea, alegia. Horregatik, garrantzitsua da kontuan izatea behatu den lagineko adin-taldearen edo emakume/gizonen banaketa ez datorrela bat biztanlerian adin-taldeek edo emakume/gizonek duten pisuarekin; besteak beste, haur eta emakume gehiago behatzen baitira biztanleriarekiko proportzioan, eta adineko eta gizonezko gutxiago (ikus eranskinetan). Garrantzitsua da hori kontuan izatea hiriburuetakoa nahiz udalerrietako emaitzak interpretatzeko.

Aurrez aipatu bezala, landa-lana diseinatzeko, behatu beharreko solaskide kopuru orientatiboa kalkulatu zen laginketaren bidez. Landa-lana amaitu ostean, behatutako solaskide kopuru errealekin, jasotako emaitzen akats-tarte zehatza kalkulatu da.

Horren arabera, euskararen kale-erabileraren **akats-tartea $\pm$ % 0,3koa da** ikerketaren lagin osoarentzat, % 95,0ko konfiantza-mailan eta $p = \%$ 12,6 izanik. Akats-tarte hori erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria da. Lagin-akatsa kalkulatzeko eredu matematikoaz gehiago jakin nahi izanez gero, jo (Yurramendi eta Altuna 2009) edota (Yurramendi et al. 2013) txostenetara.

6 LANTALDEA

Ikerketa osoa modu egokian garatzeko, pertsona-talde zabala aritu da lanean, Soziolinguistika Klusterrak koordinatuta.

Olatz Altuna Zumeta izan da Hizkuntzen erabileraren kale-neurketaren 2021eko zuzendaria, azken sei edizioetan bezalaxe. Landa-lanaren arduradun gisa jardun du, berriz, Maialen Iñarra Arregik.

Berme metodologikoa ziurtatzeko, Batzorde Zientifikoa izan du ikerketak. Bost kidek osatu dute Batzordea: Eneko Gorri, Iñaki Iurrebaso Biteri, Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba, Paula Kasares Corrales eta Xabier Isasi Balantzategi.

Emailtzen azterketan aritu dira, nagusiki, Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoko langileak: Olatz Altuna Zumeta, Maialen Iñarra Arregi eta Asier Basurto Arruti. Emailtza horiek interpretatzeko, Batzorde Zientifikoko kideek ekarpen garrantzitsua egin dute.

Espazio publikoaren azterketan lagundu dute EHUko Arkitektura Fakultateko irakasle hauek: Oihana Santolaria del Campo, Koldo Telleria Andueza eta Irati Otamendi Irizar.

Datu Tailerrako lankide Nestor Urrestaratzuk eta Eñaut Urrestaratzuk datu-basea kudeatzen nahiz aholkulari estatistiko gisa jardun dute, hurrenez hurren.

Datu-bilketaren azpiegitura informatikoa diseinatu eta sortu zuen IZT enpresak; bera arduratu da datu-bilketa garaian intzidentzia informatikoen jarraipena egiteaz.

Datuak biltzen jardun dute 336 neurtzaile profesionalek Euskal Herri osoan. Horietako gehienak Euskal Herriko Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko, Mondragon Unibertsitateko, Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta CNRS-IKER zentroko ikasleak izan dira. Unibertsitate horiek neurtzaile hauekin harremana egiten laguntza eskaini dute³⁶.

Neurtzaileek aurrez aurreko formakuntza-saioa jaso zuten 2021eko irailean. Ikerketaren zuzendari Olatz Altunak (Soziolinguistika Klusterra) gidatutako saioan, datuak biltzeko prozedura azaldu zen, eta beharrezko materialak jaso zituzten.

Beste alde batetik, neurtzaile horien koordinazioan aritu dira zenbait lankide. Soziolinguistika Klusterreko bazkide den AEK-ko Arrate Narbaiza Lekue, Lorea Zulaika Arriaga eta Oianko Garde Jaunsaras Araba, Bizkaia eta Nafarroako neurtzaileen koordinazioaz arduratu dira, hurrenez hurren. Bestalde, Gipuzkoako eta

³⁶ UPV/EHUrekin lortutako lankidetzari esker, aukera askeko kredituak eskatzeko aukera izan dute unibertsitate horretan ikasten duten neurtzaileek. Mondragon Unibertsitatean ikus-entzunezko gradua ikasten duten neurtzaileek ere izan dute eskaera hau bideratzeko aukera.

Ipar Euskal Herriko neurtzaileen koordinazioa Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoaren ardurapen egin da (Belen Uranga Arakistain eta Maialen Iñarra Arregi, hurrenez hurren).

7 EMAITZAK

Datozen azpi-ataletan aurkezten dira ikerketa honek utzitako emaitza esanguratsuenak. Eranskinetan, bada emaitza osagarriak.


Emaitzen interpretaziorako, euskararen kale-erabilerak duen akats-tartea hartu da kontuan (% 95eko konfiantza-mailarekin kalkulatuak). Erabilera-balio bakoitzak bere errete-maila du. Eranskinen atalean jaso dira akats-tarte horiek.

Hasieran aipatu moduan, ez da komeni irakurketak datu isolatuetara edo "igo/jaitsi" kontzeptuetara mugatzea, baizik eta ikuspegi diakronikoz egitea. Izan ere, hizkuntza-erabileraren fenomeno konplexua da, eta, beraz, komeni da joera-aldaketak berresteko, edizio bat baino gehiagoko jarraikortasuna aztertzea. Hori horrela, emaitzen gorabehera puntualei baino, joerei erreparatu zaie emaitzen irakurketan.

7.1 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. EMAITZA OROKORRA (2021)

Euskal Herriko kaleetan, **euskaraz** ari da **zortzi lagunetatik bat**. Gehiengoak gaztelaniazko elkarriketaren batean parte hartu du (zortzi lagunetik seik)³⁷, eta gainerako laguna frantsesez³⁸ edo beste hizkuntza batean behatu da.

1. Grafikoa. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA. DATU OROKORRA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

³⁷ Gaztelaniazko elkarriketetan behatu diren solaskideen % 4 behatu da Ipar Euskal Herrian.


³⁸ Frantsesa ia erabat Ipar Euskal Herrian entzun da; frantsesezko elkarriketetan parte hartu duten solaskideen % 99 behatu da Ipar Euskal Herrian.

7.1.1 Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera (1989-2021)

Azken bost urteotan, ez da gorabeherarik izan euskararen kale-erabilera orokorrean. Oro har, euskararen presentziak ez du aldaketa nabarmenik izan; ez da presentziarik galdu kalean. Are gehiago, 1989. urtetik hona, 1,8 puntu egin du gora euskararen kale-erabilerak.

2006an neurtu zen kalean euskararen erabilera-mailarik altuena (% 13,7), ondoren beherakada txiki bat neurtu zen (2011, 2016), eta azken bost urteetan erabileraren datuak ez du gora edo behera egin.

2. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA. EUSKAL HERRIA, 1989-2021 (%)³⁹



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.


Aztergai izan diren erdaren kale-erabileretan ere ez da aldaketa nabarmenik antzeman. 2011ko neurketan behatu zen beste hizkuntzen kale-erabilera altuena; aipagarria da, ordea, erabilera-datuak neurtzeko moduak eraginda handitu zitekeela datua³⁹.

³⁹ 2001. urtera bitarte, Hego Euskal Herrian euskararen eta gaztelaniaren erabilerei buruzko informazioa jasotzen zen soilik, eta Ipar Euskal Herrian, berriz, euskararen eta frantsesaren erabilerei buruzkoa. 2006. urteko neurketan bildu zen lehen aldiz euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen erabilerari buruzko informazioa. Hego Euskal Herrian, frantsesaren erabilera “beste hizkuntzen” kategorian jaso zen, eta modu berean jotzen zen Ipar Euskal Herrian gaztelaniaren erabilerarekin. 2016. urtetik aurrera, ordea, gaztelania eta frantsesa aparteko kategorietan jasotzen dira.

2006. urtetik aurrerako euskararen erabilera-datuak “beste hizkuntzen” erabilera kontuan hartu gabe kalkulatu bagenitu, joera berbera du euskararen kale-erabilerak (Euskal Herrian nahiz lurralde bakoitzean):

	2006	2011	2016	2021
Euskararen kale-erabilera (%) – Euskal Herria	14,0	13,6	12,9	12,9

3. Grafikoa. HIZKUNTZEN KALE ERABILERAREN BILAKAERA. EUSKAL HERRIA, 2006-2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

4. Taula. HIZKUNTZEN KALE ERABILERAREN BILAKAERA. EUSKAL HERRIA, 1989-2021 (%)

Hizkuntza	1989	1993	1997	2001	2006	2011	2016	2021
Euskaraz	10,8	11,8	13,0	13,3	13,7	13,2	12,6	12,6
Erdaraz (gaztelaniaz edo frantsesez)	89,2	88,2	87,0	86,7	83,7	83,1	-	-
Gaztelaniaz	-	-	-	-	-	-	76,4	75,8
Frantsesez	-	-	-	-	-	-	8,3	8,8
Beste hizkuntzetan	-	-	-	-	2,6	3,7	2,7	2,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

7.1.2 Hizkuntzen kale-erabilera, lurraldeka⁴⁰ (2021)

Lurraldeak hiru multzotan sailka daitezke euskararen erabilera-mailari dagokionez: Gipuzkoan hitz egiten da gehien (% 30,6); hurrengo postuan kokatzen da Bizkaia, % 9,4ko erabilerarekin; eta Araban, Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian % 5-6 inguruko erabilera-maila dago.

1. Mapa. EUSKARAREN KALE ERABILERA, LURRALDEKA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Beste hizkuntzak, berriz, **Arabako kaleetan hitz egiten dira gehien** (% 4,6), euskararen erabilera-mailaren pare; Ipar Euskal Herriko kaleetan entzun dira gutxien beste hizkuntzak (% 1,8); eta tartean kokatu dira gainerako lurraldeak (% 2,7). Proportzio berbera behatu da Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroa Garaian.

Halaber, nabarmentzekoa da **gaztelaniaren presentzia Ipar Euskal Herriko kaleetan** (% 7,2). Hego Euskal Herrikoa kaleetan, aldiz, txikia da, oro har, frantsesaren presentzia.

⁴⁰ Ipar Euskal Herriko datuak hiru lurraldeak batuta eman dira, jasotako elkarrizketa kopurua nahikoa ez delako erabilera-datuak bereizita eman ahal izateko.

4. Grafikoa. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA LURRALDEAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)⁴¹



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

⁴¹ Hemendik aurrerako grafikoetan, erabilera-datuak lurraldeka eskaintzen direnean, ordena hau aplikatuko da. Hau da, euskararen erabilera orokor altuena duen lurraldea (Gipuzkoa) agertuko da lehenengo, eta erabilera orokor baxuena duen lurraldea azkena (Araba).


7.1.3 Euskararen kale-erabileraren bilakaera, lurraldeka (1989-2021)

Azken bost urteotan, ez da aldaketa esanguratsurik gertatu lurraldeetako euskararen kale-erabileretan, akats-tartearen barruan baitaude datu-puntu gorabeherak (Nafarroa Garaian izan ezik)⁴². Ñabardura hauek egin daitezke:

- Ipar Euskal Herrian beherantz doa euskararen kale-erabilera, 1997tik.
- Gipuzkoan, azken hamar urteetan, joera beherakorra sumatu da.
- Araban, berriz, azken hamar urteetan, goranzko joera behatu da.
- Nafarroa Garaian, 2016tik hona, joera beherakorra hartu du euskararen kale-erabilerak. Dena den, garrantzitsua da beste neurketa batzuk egitea joera hori berresteko.
- Bizkaian, azken bost urtetan, gora egin du zertxobait erabilerak. Aldaketa txiki hori akats-tartearen barruan dago, ordea; ez da, beraz, estatistikoki adierazgarria.

1989-2021 bitarteko bilakaerari erreparatuz, gora egin du euskararen kale-erabilerak EAeko lurraldeetan; eta, Nafarroa Garaian, berriz, joera gorabeheratsua antzeman zaio, nahiz eta gorabehera handiena 1,8 puntukoa den.


5. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA. ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA, 1989-2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

⁴² Gipuzkoako akats-tartea $\pm 0,7$ koa da; Bizkaikoa $\pm 0,6$ koa; Nafarroa Garaikoa $\pm 0,4$ koa; Ipar Euskal Herrikoa $\pm 0,6$ koa; eta Arabakoa $\pm 0,3$ koa da. 2021eko euskararen kale-erabilerari dagozkie akats horiek, % 95,0ko konfiantza-mailan kalkulatuak. Gainerako akats guztiak eranskinetan ikus daitezke.

6. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA. NAFARROA GARAIA, 1989-2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

7. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA. IPAR EUSKAL HERRIA, 1997-2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

7.1.4 Hizkuntzen kale-erabilera, eremu soziolinguistikoaren arabera (2021)

Lehenik eta behin, honako ohar hauek hartu behar dira kontuan:

- Ipar Euskal Herrian, ez dago euskararen ezagutzari buruzko daturik, herriz herri. Ondorioz, Inkesta Soziolinguistikoak erabiltzen duen sailkapeneko hiru eremuak baliatu dira erabileraren eremukako azterketa egiteko.

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Nafarroa Beherean eta Zuberoan dago euskaldun kopuru altuena (% 50), hiztun gutxien bertan bizi den arren (45.575 hiztun); Lapurdi barnealdea dator jarraian, % 25eko euskaldun proportzioarekin (gunerik populatuena da berau 138.591 hiztunekin); eta, azkenik, BAM eremuan daude euskaldun gutxien (123.130 hiztunen % 8 dira euskaldunak).


- Hego Euskal Herriko guneko soziolinguistikoak bereizteko, herriz herriko euskararen ezagutza-datu eguneratuenak erabili dira: 2016ko zentsukoak EAEn, eta 2011ko zentsukoak Nafarroan.

Mapa Soziolinguistikoak proposatutako multzokatze soziolinguistikoa erabili da, kaleko erabilera-datuak kalkulatzeko. Hona hemen lau guneko soziolinguistikoak:

- Lehenengo gunea: euskaldunak % 20 baino gutxiago diren eremua
- Bigarren gunea: euskaldunak % 20-50 bitartean diren eremua
- Hirugarren gunea: euskaldunak % 50-80 bitartean diren eremua
- Laugarren gunea: euskaldunak % 80 baino gehiago diren eremua

Bigarren guneko soziolinguistikoan bizi da Hego Euskal Herriko biztanle gehien (1.587.078 hiztun, % 56). Lehenengo guneko soziolinguistikoan, berriz, 601.066 hiztun bizi dira (% 21). Jarraian dator hirugarren guneko soziolinguistikoa, 556.481 hiztunekin (% 20). Azkenik, laugarren guneko soziolinguistikoan bizi da hiztun gutxien (84.447 hiztun, % 3).

8. Grafikoa. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, GUNE SOZIOLINGUISTIKOEN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)⁴³



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Zenbat eta euskaldun gehiago izan, euskararen kale-erabilerak ere gora egiten du, Hego Euskal Herrian nahiz Ipar Euskal Herrian.

Hego Euskal Herrian, nabarmena da bigarren eta hirugarren gune soziolinguistikoetako erabilera-datuen jauzia, baita hirugarren eta laugarren guneetako ere. Hitzun kopuru batetik aurrera erabileran aurrerapauso garrantzitsuak eman daitezkeela esan daiteke⁴⁴.

⁴³ Hego Euskal Herriko eremu euskaldunenaren (euskaldunak % 80 baino gehiago diren eremuan) erabilera-datua bat dator UEMAk berriki argitaratu dituen kaleko erabilera-datuekin. Euskaldunak % 80-90 bitartean dituzten UEMako herrietan % 79,2koa da euskararen kale-erabilera (Soziolinguistika Klusterra 2022). Euskal Herriko neurketan, euskaldunak % 90 baino gehiago diren herririk ez da behatu, herririk populatuena hautatu direlako euskaldunak % 80tik gora diren eremuan, erabilera-datu adierazgarriak eskuratzeko.

⁴⁴ Xabier Isasik, J.L. Alvarez Enparantza Txillardegiren eredu matematikoa oinarri hartuta (Alvarez Enparantza Txillardegia 2002), % 33 inguruan ezarri zuen gaitasun-mailaren atalasea (Isasi Balantzategi 2000). Hori litzateke euskararen biziraupenerako ezinbesteko euskaldunen proportzio txikiena -atalase maila-.

7.1.5 Euskararen kale-erabileraren bilakaera, eremu soziolinguistikoaren arabera

7.1.5.1 Hego Euskal Herrian (1993-2021)

Hego Euskal Herrian eremu soziolinguistikoaren arabera bilakaera aztertzeko multzo egonkorak sortu dira, horretarako 2001eko zentsuko euskararen ezagutza-datuak erabili dira. Multzo egonkorak egin ezean bilakaeraren argazki desegokia egingo da, multzoen mugetan dauden udalerriak zentsu batetik bestera eremuz alda daitezkeelako, eta ondorioz, bilakaeraren datuak desitxuratu daitezkeelako.

2001ean neurtutako udalerri guztiak honako lau eremutan banatu ziren: euskaldunak % 25 baino gutxiago diren eremua; euskaldunak % 25-50 bitartean diren eremua; euskaldunak % 50-75 bitartean diren eremua; eta, azkenik, euskaldunak % 75 baino gehiago diren eremua⁴⁵. Horrela sailkatutako herri guztien bilakaera aztertu da, baina, esan dugun bezala, beren eremua edizioz edizio mantenduta. Azken batean, galdera honi erantzun nahi zaio atal honetan: duela 30 urte euskaldunena zen eremuan, zein bilakaera izan du euskararen kale-erabilerak? Eta duela 30 urte erdaldunena zen eremuan?


Azken bost urteetan, eremurik euskaldunenean, behera egin du euskararen kale-erabilerak. Halaber, euskaldunak % 25-50 diren eremuan beheranzko joera du erabilerak. Gainerako eremuetan ez da aldaketa esanguratsurik atzeman.

1993tik hona, eremurik euskaldunenean izan ezik, gainerako eremuetako euskararen kale-erabilerak gora egin du. Abiapuntuko erabilera-mailarekiko hazkunde-proportzio handiena % 25-50 ezagutza-eremuak izan du, eta, ondoren, % 50-75 ezagutza-eremuak.

1993tik 2006ra bitartean, goranzko joera zuen euskararen kale-erabilerak eremu soziolinguistiko guztietan. 2006tik, ordea, joera beherakorra hartu dute. Gaur egun, euskaldunak % 75tik gora diren eremuan, hain zuzen, duela 30 urteko erabilera-maila antzekoa du euskarak.

⁴⁵ Kale-Neurketan hastapenetik erabili izan den irizpidea mantendu da eremu soziolinguistikoaren bilakaera aztertzeko. Hori horrela, hogeita bosteko tartea duten lau eremu baliatu dira: euskaldunak % 25 baino gutxiago; % 25-50 bitartean; % 50-75 bitartean; eta euskaldunak % 75 baino gehiago diren eremua (Soziolinguistika Klusterra 2017).

9. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, EREMU SOZIOLINGUISTIKOEN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1993-2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.


7.1.5.2 Ipar Euskal Herrian (2011-2021)

Azken bost urteetan, ezagutza gutxiagoko eremuetan⁴⁶ (BAM⁴⁷ eta Lapurdi barnealdea), ez da alde esanguratsurik egon euskararen kale-erabileran. Ezagutza gehiagoko eremuetan (Nafarroa Beherea eta Zuberoa), ordea, behera egin du euskararen kale-erabilerak, 2011ko mailara itzuliz.

⁴⁶ Ipar Euskal Herriko hiru eremuetako euskaldunen proportzioaren erreferentzia VI. Inkesta Soziolinguistikoko datuetatik atera da (Eusko Jaurlaritza et al. 2019).

⁴⁷ Euskaraz BAM eta frantsesez BAB bezala ezagutzen den eremua Baiona, Angelu, Biarritz, Bidarte eta Bokale udalerriek osatzen dute.

**10. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, IPAR EUSKAL
HERRIKO EREMUEN ARABERA, 2011-2021 (%)⁴⁸**



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

Ipar Euskal Herriko kasuan, akats-tarte handia dute 2011 baino lehenagoko datuek, eremuen arabera xehetzeko elkarrizketa nahikoa behatu ez direlako. Horregatik, euskararen kale-erabileraren azken hamar urteetako bilakaera aztertu da Ipar Euskal Herrian.


⁴⁸ Nafarroa Beherean eta Zuberoan, 2016ko eta 2021eko edizioetan, lagina optimizatzeko ahalegina egin da. 2011ko herri berberak hartuz, 2016ko euskararen kale-erabilera % 13,1ekoa litzateke, eta 2021ekoa % 9,3koa. Ondorioz, grafikoan jasotzen den joera berresten da.

7.1.6 Hizkuntzen kale-erabilera, hiriburuetan⁴⁹ (2021)

Donostian, euskararen kale-erabilera % 15,3koa da, eta gainerako hiriburuetan % 2,5-4 artean dago erabilera. Aipagarria da, hiriburu hurrenkeran, Gasteiz bigarren postuan kokatu izana. Gogora dezagun Araba dela erabilera baxuena duen lurraldea.

Hiriburuetan altuagoa da euskara, gaztelania edo frantsesa ez diren beste hizkuntzen kaleko erabilera Euskal Herriko batz bestekoa baino. Gasteizen eta Bilboren kasuan, beste hizkuntza horien kaleko erabilera azpimarratu behar da, % 4-5ekoa baita. Baionan, berriz, % 3,4koa da gaztelaniaren kale-erabilera.

11. Grafikoa. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, HIRIBURUETAN. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.


⁴⁹ Maule-Lexarre eta Donibane Garaziko datuak ez dira eskaini, nahiko elkarrizketa behatu ez direlako.

7.1.7 Euskararen kale-erabileraren bilakaera, hiriburuetan (1989-2021)

Azken hamar urteotan, gora egin du euskararen kale-erabilerak Gasteizen. Gainerako hiriburuetan, ez da aldaketa esanguratsurik gertatu.

1989tik hona, Hego Euskal Herriko hiriburu guztietan igo da euskararen kale-erabilera.


12. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, HIRIBURUETAN. EAE, 1989-2021 (%)⁵⁰



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.


⁵⁰ 2016tik aurrera, Donostian bi auzo gehiago neurtzen dira: Igeldo eta Añorga. Auzo horien datuak kontuan hartzen ez badira, erabilera % 13,9koa zen 2016an eta 12,9koa 2021ean.

13. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, IRUÑEAN, 1989-2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

14. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, BAIONAN, 2011-2021 (%)⁵¹



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

⁵¹ 2021ean, Baionan, eremu berri bat behatu da: Saint Croix. Eremu horren datuak kontuan hartzen ez badira, erabilera % 2,1ekoa da; eta, horiek kontuan hartuz gero, % 2,5ekoa da.


7.2 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA (2021)

Euskararen kale-erabilera altuenetik txikienera hau da adin-taldeen **hurrenkera: haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak**.

Nabarmentzekoa da haurren erabileraren eta gazteenaren artean dagoela alde handiena (ia 7 puntukoa da).

Beste hizkuntzak helduek erabiltzen dituzte gehien, eta adinekoek gutxien.


15. Grafikoa. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, ADINAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

Helduen adin-taldea lehen aldiz bitan bereizi da 2021eko neurketan, eta heldu gazteek (25-44 urte) euskara gehiago darabilte heldu nagusiek baino (45-64 urte); 5 puntuko alde dago (% 14,3 eta % 9,3 hurrenez hurren). Gainera, heldu-gazteak gehiago entzun dira euskaraz hitz egiten gazteak (15-24 urte) baino. Beste hizkuntzak ere gehiago hitz egiten dituzte heldu gazteek.

**16. Grafikoa. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, HELDUEN BEREIZKETA. EUSKAL
HERRIA, 2021 (%)**



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.


7.2.1 Hizkuntzen kale-erabilera, adin berekoen artean (2021)

Aurreko ataleko datuak 2021eko neurketan jasotako elkarriketa guztiak aintzat hartuz atera dira. Haurren erabilera, adibidez, haurrak egon diren elkarriketa guztiekin kalkulatu da (solaskidea(k) edozein adin-taldekoa(k) izan daite(z)ke). Modu berean kalkulatu dira gainerako adin-taldeen erabilerak.

Atal honetako datuak, berriz, adin-talde berekoek osatu dituzten elkarriketak aintzat hartuz atera dira, ez 2021eko neurketan behatutako elkarriketa guztiekin⁵². Haurren arteko erabilerak, esaterako, haurrez soilik osatutako elkarriketetako hizkuntzei egiten die erreferentzia. Modu berean kalkulatu dira gainerako adin-talde berekoen erabilerak.

Adin berekoen arteko elkarriketetan, zenbat eta gazteago, orduan eta altuagoa da euskararen kale-erabilera. Kasu honetan, heldu gazteen arteko erabilera ez da gazteen arteko erabileraren aurretik kokatzen. Heldu nagusien arteko erabilera, berriz, gehiago hurbiltzen da adinekoen arteko erabilerara. Azkenik, haurren arteko erabileraren eta gazteen artekoaren aldea ez da hain handia.

17. Grafikoa. ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEKO KALE ERABILERA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

⁵² Azterketa honek garrantzitsua dirudi hizkuntza-sozializazioaren ikuspegitik (Kasares 2014).

7.2.2 Adin-taldeen kale-erabileran sakonduz


Ondorengo grafikoan, aurreko bi ataletan aurkeztutako bi datuak jasotzen dira. Hau da, adin berekoen arteko hizkuntza-praktikak alderatuko dira adin horietako pertsonen elkarriketa guztietako hizkuntzekin (direla adin desberdineko solaskideak edo adin berekoak).

Adin-talde guztietan, baxuagoa da euskararen kale-erabilera adin berekoekin elkartzean. Gazteen kasuan apenas ez dago alderik bi erabileren artean. Kontuan hartzekoa da gazteen % 80 behatu dela beren arteko elkarriketetan. Adinekoetan ere beren arteko elkarriketak nagusitzen dira (adinekoen % 68 behatu da horietan), eta beste adin-taldeekin elkartzen direnean puntu bateko aldea besterik ez dago euskararen erabileran.

Bi erabileren arteko alderik handiena haurretan eta heldu gazteetan gertatzen da. Bi adin-talde horien kasuan esan daiteke beste adin-taldeetako solaskideekin elkartzean erabilerak gora egiten duela. Pentsatzekoa da haurrak eta heldu gazteak elkartzea dela euskara erabiltzeko elkarriketa-mota optimoena. Ziurrenik, horrek dakar bi adin-talde horietako euskararen kale-erabilerak altuagoak izatea. Elkar eragin positiboa dute.

Beste hizkuntzen kasuan, heldu gazteak beren artean elkartzean, erabilera altuena da (% 5,8). Aitzitik, haurren arteko elkarriketetan, baxua da beste hizkuntzen erabilera; gainerako adin-taldeekin elkartzen direnean baino baxuagoa, alegia.

**18. Grafikoa. HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA ETA ADIN
BEREKOEN ARTEAN. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)**




Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

7.2.3 Euskararen kale-erabileraren bilakaera, adinaren arabera (1989-2021)⁵³

Azken bost urteetan, haurren erabilerak gora egin du, eta gainerako adin-taldean erabilerak egonkor daude. Beste neurketa batzuk beharko dira haurren kale-erabilerak joera aldaketa izan duen berresteko.

1989tik aurrera, euskararen kale-erabilerak gora egin du adin-tarte guztietan (bereziki, haurrenak eta gazteenak), adinekoen salbuespenarekin.

19. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 1989-2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

⁵³ Azterketa hau elkarriketa guztiak aintzat hartuz burutu da; adin berekoen arteko elkarriketak nahiz adin desberdinetako solaskideen arteko elkarriketak.


7.2.4 Euskararen kale-erabilera, adinaren arabera, lurraldeka (2021)

Lurralde guztietan, haurrek hitz egiten dute gehien euskaraz, eta gutxien adinekoek. Gazteen eta helduen erabileren hurrenkeran, desberdintasunak daude lurraldez lurralde:

- Gazteek helduek baino euskara gehiago erabiltzen dute Gipuzkoan, Ipar Euskal Herrian eta Araban.
- Helduek gazteek baino euskara gehiago erabiltzen dute Nafarroa Garaian. Bizkaiko kasuan, ez dago estatistikoki alde esanguratsurik⁵⁴. Nabarmenezkoa dirudi bi lurralde horietako gazteen euskararen erabilera haurrenaren erdia dela (gainerako lurraldeetan bi adin-taldeen erabilerak ez dute hain alde handia).

Hala eta guztiz ere, adin-talde berekoen arteko elkarrizketari soilik erreparatuz gero⁵⁵, gazteen arteko kale-erabilera (% 7,7) helduen artekoa baino altuagoa da (% 5,8) Bizkaian. Nafarroa Garaian, ez dago alderik baten eta bestearen artean (% 4,4 eta % 4,6 hurrenez hurren). Azkenik, Araban eta Ipar Euskal Herrian, gazteen erabilera da altuena (% 6,2 eta % 6,7 hurrenez hurren), haurren artekoenaren gainetik (% 3,9 eta % 4,9 hurrenez hurren).

20. Grafikoa. EUSKARAREN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA, LURRALDEKA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

⁵⁴ Eranskinean ikus daiteke akats-tartea.


⁵⁵ Eranskinetan jaso dira lurralde bakoitzeko erabilera-datuak adinkide berekoen artean.

Lurralde guztietan, heldu gazteek (25-44 urte) heldu nagusiek (45-64 urte) baino gehiago hitz egiten dute.

Heldu gazteen kasuan, gazteen erabilerak gaintitzen dute Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroa Garaian. Araban, heldu gazteen eta gazteen erabilerak maila berean kokatzen dira, eta azkenik, Ipar Euskal Herrian, gazteek euskara gehiago darabilte heldu gazteek baino.

Heldu nagusien erabilerak adinekoen erabileraren maila bera hartzen du Bizkaian eta Ipar Euskal Herrian. Gainerako lurraldeetan, heldu nagusiek adinekoek baino gehiago darabilte euskara.

21. Grafikoa. EUSKARAREN KALE-ERABILERA, HELDUEN BEREIZKETA, LURRALDEKA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

7.2.5 Euskararen kale-erabileraren bilakaera, adinaren arabera, lurraldeka (1989-2021)

7.2.5.1 Gipuzkoa


2021eko edizio honek gazteen euskararen erabileraren azken hamar urteetako beherakada berretsi du Gipuzkoan.

Aitzitik, haurren euskararen erabilerak ez du behera egin azken bost urteetan; beste neurketa batzuekin ziurtatu beharko da joera beherakorra eten den.

Helduen kasuan, erabilera bere horretan dago azken hamar urteetan.

30 urteko ikuspegia hartuz, ordea, nabarmendu behar da hiru adin-talde horietan gora egin duela euskararen kale-erabilerak. Adinekoenak beheranzko joera du lehen neurketatik.

22. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. GIPUZKOA, 1989-2021 (%)




Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

7.2.5.2 Bizkaia

Azken bost urteetan, haurren, gazteen eta helduen euskararen kale-erabilerak gora egin du Bizkaian. Adinekoen kasuan, aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Arretaz begiratu behar da hurrengo edizioan goranzko joera berresten ote den.

Aipaturiko hiru adin-taldeetako euskararen erabilerak gora egin du 1989tik; haurren erabileran behatu da igoera esanguratsua. Adinekoen euskararen erabilerak, berriz, beheranzko joera du 1989tik.

23. Grafikoa⁵⁶. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. BIZKAIA, 1989-2021 (%)




Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

7.2.5.3 Nafarroa Garaia

Azken bost urteetan, gazteen, helduen eta adinekoen euskararen kale-erabilerak jaitsi egin dira. Haurren erabilerak, berriz, ez du aldaketa nabarmenik izan. Arretaz begiratu behar da hurrengo edizioan adin-taldeetako erabilerak hartzen duten joera.

1989tik hona, ez da aldaketa esanguratsurik gertatu adin-taldeen euskararen kale-erabileretan. Aipagarriena litzateke adinekoen euskararen erabilera-maila jaitsi izana.

24. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. NAFARROA GARAIA, 1989-2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.


⁵⁶ Atal honetan, hemendik aurreko grafikoen ardatz bertikaleko eskala handitu egin behar izan da, erabilera-datuak behar bezala interpretatzeko.

7.2.5.4 Ipar Euskal Herria

Azken bost urteetan, adin-talde guztietako euskararen erabilerak egin du behera. Salbuespena dira gazteak; beren erabilerak gora egin du, duela hamar urteko mailara iritsiz. Arretaz begiratu behar da hurrengo edizioan adin-taldeetako erabilerak hartzen duten joera.

1997tik hona, belaunaldi berrien (haurren nahiz gazteen) euskararen erabilerak goranzko joera dute. Aitzitik, helduen eta adinekoen euskararen erabilerak joera beherakorra dute.

25. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. IPAR EUSKAL HERRIA, 1997-2021 (%)




Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

7.2.5.5 Araba

Azken bost urteetan, gora egin du gazteen euskararen kale-erabilerak. Gainerako adin-taldeen erabilerak ezin daiteke ondorioztatu aldaketa esanguratsurik izan dutenik estatistikoki.

1989tik hona, haurren, gazteen eta helduen erabilerak goranzko joera dute. Adinekoen erabilerak, berriz, joera beherakorra du.

26. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. ARABA, 1989-2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

7.2.5.6 Ikuspegi orokorra

Azken bost urteei begira, honako ondorio hauek nabarmendu daitezke:

- Haurren erabilerak gora egin du Bizkaian, eta behera Ipar Euskal Herrian. Gainerako lurraldeetan, ez dago alde esanguratsurik. Arretaz begiratu behar dira hurrengo edizioan Bizkaiko eta Ipar Euskal Herriko haurren erabilerekin hartzen duten joera.
- Gazteen erabilerak gora egin du Araban, Bizkaian eta, bereziki, Ipar Euskal Herrian; eta behera Nafarroa Garaian eta Gipuzkoan.
- Helduen eta adinekoen erabilerekin behera egin dute Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian. Gainerako lurraldeetan, ez da aldaketa esanguratsurik gertatu bi erabilera horietan, Bizkaiko helduen erabilerak igoera apala izan badu ere.

1989tik hona, berriz, honako ondorio hauek azpimarratu daitezke:

- Lurralde guztietan egin du behera adinekoen erabilerak. Gehien (edo ia gehien) hitz egitetik gutxien hitz egitera pasatu dira.
- Ia lurralde guztietan gora egin du haurren erabilerak. Nafarroa Garaiko haurrek duela 30 urteko erabilera-maila antzekoa dute.
- Gazteen eta helduen erabilerei dagokienez, EAEko lurraldeetan gora egin dute; Nafarroa Garaian, ez da aldaketa esanguratsurik atzeman; eta, azkenik, Ipar Euskal Herrian, gora egin du gazteen erabilerak eta behera helduen erabilerak.


7.3 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADIN ETA SEXU BEREKOEN ARTEAN (2021)

Atal honetan, adin-talde berekoen arteko emakumezkoen elkarriketak eta gizonezkoenak bereizi dira. Talde berean bat egiten dute adinkide eta sexu berekoek.

Emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz haurretan, gazteetan eta helduetan. Desberdintasun handiena haurren eta gazteen adin-taldeetan gertatzen da. Adinekoak beren artean elkartzen direnean, berriz, gizonezkoek euskara gehiago darabilte emakumezkoek baino.

Beste hizkuntzek presentzia handia dute heldu gizonezkoen arteko elkarriketetan; heldu gazteetan gehiago heldu nagusietan baino.

27. Grafikoa. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, ADIN ETA SEXU BEREKOEN ARTEAN. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.


7.3.1 Euskararen kale-erabileraren bilakaera, adin eta sexu berekoen artean (2011-2021)

Haurren, gazteen nahiz helduen artean emakumezkoek euskara gehiago erabiltzearen portaera aurreko edizioetan ere behatu da. Emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago erabiltzearen alde horren bilakaerari erreparatuz, honako hau azpimarratu daiteke:

- Helduen artean, gero eta handiagoa da aldea.
- Gazteen artean, egonkor mantentzen da aldea, azken bost urteetan.
- Haurren artean, aldea txikitu bazen ere, neurketa honetan duela hamar urteko arrakala berretsi da.

Adinekoen kasuan, ordea, gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago darabilte euskara. Alde hori, ordea, txikitzen da. Hau da, gizonezkoen euskararen erabilera-maila emakumezkoenera hurbiltzen ari da.

28. Grafikoa. EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADIN ETA SEXU BEREKOEN ARTEAN. EUSKAL HERRIA, 2011-2021 (Emakumeen eta gizonen erabileren kendura)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.


7.3.2 Euskararen kale-erabilera, adin eta sexu berekoen artean, lurraldeka (2021)

Oro har, lurralde guztietan egiten dute euskaraz gehiago emakumeek haurretan, gazteetan eta helduetan. Dena den, Ipar Euskal Herrian, heldu nagusien portaera adinekoen berbera da⁵⁷.

Adinekoetan, gizonezkoen euskararen erabilera altuagoa da lurralde guztietan. Halere, salbuespen hauek aipatu behar dira:

- Araban, adineko emakumezkoen artean gehiago darabilte euskara adineko gizonezkoen artean baino.
- Bizkaiko adinekoen artean, ez da alderik antzeman emakumezkoen eta gizonezkoen arteko erabileretan.

29. Grafikoa. EUSKARAREN KALE-ERABILERA, ADIN ETA SEXU BEREKOEN ARTEAN. EUSKAL HERRIA, 2021 (Emakumeen eta gizonen erabileren kendura)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.


⁵⁷ Ipar Euskal Herriko erabilera-datuen aldea tentuz hartu behar da, akats-tarte handia baitute emakumezkoen nahiz gizonezkoen arteko erabilerekin.

7.4 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA (2021)

Haurren presentzia eragin handiko aldagaia da. Euskararen erabilera-daturik altuenak haurrak eta nagusiak daudenean jasotzen dira, eta baxuenak haurrik ez dagoen elkarriketetan. Nagusien erabilera bikoiztea dakar haurrak solaskide izateak.

Beste hizkuntzen kasuan, haurren arteko erabilera oso urria da; baina horiek nagusiekin elkartzen direnean, gora egiten du beste hizkuntzen kale-erabilerak, nagusien arteko erabilera-mailaren parera iristeraino.

30. Grafikoa. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.


7.4.1 Euskararen kale-erabileraren bilakaera, haurren presentziaren arabera (2006-2021)⁵⁸

Haurren arteko elkarrizketetan, aurreko joera negatiboa aldatuz, gora egin du euskararen erabilerak azken bost urtean. Garrantzitsua izango da hurrengo edizioako datuei erreparatzea, joera-aldaketa gertatu den berresteko.

Nagusien arteko elkarrizketetan, azken hamabost urteetan, ez dago alde handirik euskararen kale-erabileran.

Haurrak eta nagusiak nahastuta egiten den euskararen erabilera altuena izan da edizio guztietan. Gainera, goranzko joera sumatzen zaio, 2006tik.

31. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2006-2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

⁵⁸ Deigarria gerta liteke haurren presentziaren araberako hiru elkarrizketa motetan euskararen erabilerak gora egin duela aurreko ediziotik. Hala eta guztiz ere, euskararen erabilera orokorraren datuak ez du gora egin. Ponderazio metodoarekin lotuta dago hori. Kontuan izan behar da nagusien arteko elkarrizketak direla balio ponderatu handiena dutenak eta gehien jaso direnak; aldi berean euskararen erabilera baxuena ematen dute. Elkarrizketa horien pisu erlatiboa handitu egin da aurreko ediziotik, hau da nagusien arteko elkarrizketa gehiago behatu dira kalean 2016an baino. Horregatik, nahiz eta nagusien arteko euskararen erabilera igo, beste elkarrizketa motek baino datu baxuagoa dutenez, ez da gertatzen igoerarik erabilera-datu orokorrean.


7.4.2 Euskararen kale-erabilera, haurren presentziaren arabera, lurraldeka (2021)

Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroa Garaian errepikatzen da Euskal Herriko joera orokorra: nagusien arteko elkarriketetan hitz egiten da gutxien euskaraz; ondoren haurren arteko elkarriketetan; eta, azkenik, haur eta nagusien arteko elkarriketetan erabiltzen da gehien euskara.

Arabako eta Ipar Euskal Herriko kasuetan ere, euskara gehien haurrak eta nagusiak batera daudenean hitz egiten da; baina haurren arteko eta nagusien arteko erabileren arteko aldea ez da estatistikoki adierazgarria.

Lurralde guztietan, nagusien erabilera bikoiztu edo hirukoiztu egiten da haurrak solaskide dituztenean.

32. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA, LURRALDEKA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

7.4.3 Haurrez eta nagusiez osatutako taldeetako hizkuntzen kale-erabilera, hizlariaren arabera (2021)

Haurren eta nagusien arteko elkarriketetan, haurra hitz egiten behatu denean altuagoa izan da euskararen erabilera nagusia hitz egiten ari denean baino.

Beste hizkuntzen kasuan, esaterako, kontrakoa gertatzen da: beste hizkuntzen erabilera altuagoa da nagusia hitz egiten ari bada.

33. Grafikoa. HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, HAURREZ ETA NAGUSIEZ OSATUTAKO TALDEETAN, HIZLARIAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

8 ONDORIOAK

8.1 ZERTAN DA EUSKARAREN KALE-ERABILERA?

Euskal Herriko kaleetan, euskaraz ari da zortzi lagunetatik bat

Hego Euskal Herriko kaleetan gertatzen diren elkarrizketa gehienak gaztelaniazkoak dira eta Ipar Euskal Herrian frantsesezkoak. Euskarazko elkarrizketak gutxiengo nabarmena dira. Euskara hizkuntza minoritarioa da, gutxiengoak darabilena; baina, batez ere, minorizatua edo gutxitua da. Euskara egoera zaurgarrian dago.

Bere lurraldean gutxiengo batek bakarrik menderatzen du euskara. Baina, Ipar Euskal Herrian ia herritar guztiek dakite frantsesez, eta Hegoaldean gaztelaniaz. Gainera, bizitza pertsonalaren nahiz sozialaren funtzio guztiak bete daitezke frantsesez edo gaztelaniaz inolako arazorik gabe. Aldiz, ezinezkoa da euskara erabiltzea hainbat harremanetarako eta hainbat zeregin aurrera eramateko.

Kaleko behaketek erakusten dute euskararen erabilera baldintzatuta dagoela. Batetik, gutxiengo izaerak baldintzatzen du, hiztun elebidun euskaldunak solaskide euskaldunak behar dituelako euskara erabili ahal izateko. Bestetik, hizkuntza gutxitu izaerak eragiten du, baldintza legal, politiko, sozial eta kulturalen arabera hizkuntza bat ala bestea hautatzea errazago edo zailago bihurtzen baita hiztun elebidunentzat.

Azken bost urteotan, ez da gorabeherarik izan euskararen kale-erabilera orokorrean

Oro har, euskararen presentziak ez du aldaketa nabarmenik izan azken neurketatik hona (2016-2021); ez da presentziarik galdu kalean. Are gehiago, 1989. urtetik hona, 1,8 puntu egin du gora euskararen kale-erabilerak. 2006an neurtu zen kalean euskararen erabilera-mailarik altuena (% 13,7), ondoren beherakada txiki bat neurtu zen (2011, 2016), eta azken bost urteetan erabileraren datuak ez du gora edo behera egin.

Gainbehera zihoan hizkuntza gutxitua biziberritzeko prozesua emankorra izan da XX. mendearen erdialdetik hona, eta euskararen egoera soziolinguistikoa nabarmen hobetu da orduetik, orokorrean. XXI. mendearen lehen laurdenean, mundu globalizatu eta aldakorrean, hizkuntza handienek indar eta eragin oso handia dute; tartean euskararen lurraldean hegemoniko diren gaztelania eta frantsesak.

Munduko hizkuntza gehienak ere egoera kezkarria edo larria daude, UNESCOk eta beste hainbat erakundek eta adituk, behin eta berriro, ohartarazi dutenez. Bioaniztasuna galtzen ari den modu berean ari da galtzen munduko hizkuntza aniztasuna, horrek suposatzen duen, giza, kultur-, eta ezagutza-galerarekin.

Euskarak izango duen bilakaera ez dago ziurtaturik. Desagertze-prozesuan dauden hizkuntza-komunitateen errealitate gordinerantz jotzea gerta liteke. Edo Europako tamaina ertaineko hizkuntzen egoerara hurbildu daiteke, gaur egungo baldintzetara egokitzen asmatzen bada eta euskararen hautua egingo duten pertsonen bizimoduan funtzio esanguratsua betetzen badu.

Lurralde batetik bestera aldeak daude euskararen kale-erabileran, eta azken 30 urteetako bilakaera ere ez da homogenea lurralde guztietan

Euskal Herria ez da homogenea euskararen presentziari, ezagutzari eta erabilerari dagokienean. Kale-erabileraren emaitzek begi bistan utzi dute aniztasun hori: Gipuzkoan hitz egiten da gehien; ondoren, Bizkaian; eta azkenik, Nafarroa Garaian, Ipar Euskal Herrian, eta Araban (antzeko datua jaso da hiru lurraldeetan).

Epe luzeko ikuspegian, 1989tik 2021era, joera desberdinak izan dituzte administrazio eremuek: gora egin du euskararen kale-erabilerak EAEko lurraldeetan; Ipar Euskal Herrian, joera beherakorra du 1997tik; eta Nafarroa Garaian, berriz, gorabeheratsua da bilakaera, baina gorabehera txikiak dira, beti ere (1,8 puntuko aldakortasuna).

Hizkuntzen erabilera baldintza demografiko, ekonomiko, politiko eta kulturalen arabera izaten da. Erabileraren bilakaerak ezin dira faktore bakarreko kausa-ondorio dinamiken bidez azaldu. Konplexutasun horrek ezinezko bihurtzen du gune eta baldintza guztietarako eraginkorra izango den esku hartze formula asmatzea. Dena den, kaleko erabileraren lurraldekako bilakaeran ikus daiteke posible dela baldintzak hobetu eta progresiboki erabilerak gora egitea. Horrek, babes legala, ekonomikoa, eta etengabeko ahalegina eskatzen du, bai maila politikoan, bai sozialean, eta baita norbanakoen aldetik ere. Euskara sustatzeko politika aktibo iraunkorrak beharko dira, eta atxikimendu soziala eta herritarren hautu kontzientea, inertziak hizkuntza hegemonikoen alde egingo duelako beti.

Eremurik euskaldunenean behera egin du euskararen kale-erabilerak

Testuinguru soziolinguistikoak eragin handia du kale-erabileran; eremu euskaldunenean entzuten da euskara gehien, eta alderantziz, gutxien erdaldunenean. Edizio guztietan gertatu da hori, baina desberdintasunak daude eremuetako erabileraren bilakaeran.

Duela hogeita hamar urte euskaldunak % 75 baino gutxiago ziren udalerrietan egin du gora euskararen kale-erabilerak 1993tik. Abiapuntuak erabilera-mailarekiko hazkunde-proportzio handiena % 25-50 ezagutza-eremuak izan du, eta ondoren, % 50-75 ezagutza-eremuak.

Oro har, eremu bakoitzaren barne-osaera aldatu egin da urteek aurrera egin ahala; eremu erdaldunena euskaldunetz joan den bitartean, eremu euskaldunena erdaldunetz joan da. Udalerrien konbergentzia-joera ikusten da; udalerririk bakoitzeko euskararen ezagutza-maila aldatuz joan ahala, erdiko eremu soziolinguistikoetan gero eta udalerririk gehiago daude eta muturreko eremuetan, berriz, gero eta gutxiago.

Nabarmentzekoa da eremu erdaldunean, alegia, duela hamarkada batzuk euskararik entzuten ez zen hainbat lekutan, euskararen erabilera hazi egin dela. Hala ere, hirigune handietan eta beste zenbait eremu geografikotan erabilera oso baxua da. Aipatutako eremuetako zenbait udalerrri biztanleria handikoak direnez, bertan euskaldun kopuru handia bizi arren, proportzio txikia osatzen dute. Hitzunen proportzioak eta haien ikusgaitasun publikoa murrizteak minorizazioa dakar. Euskaldunen arteko dentsitate handiko gune erosoak sortu edo aurkitu ezean, euskara erabiltzeko aukerarik ere ez dute izango.

Aitzitik, eremu euskaldunenean erabilerak behera egin du. Herri ertain eta txikiak dira eremu honetakoak. Biziberritze-prozesurako interes estrategikoa dute euskaldun dentsitate handiko eremuek, bertan euskara modu naturalean transmititu, birsortu eta elikatzen baita. Arretaz jarraitu beharrekoak dira udalerrri horietan hizkuntzaren bizi-indarrari eragiten dioten faktoreetan gertatzen diren aldaketak: ingurunean bertan bizi-proiektu bideragarriak garatzeko aukerak, hirigintza-proiektuen eragina, barne- eta kanpo-migrazio fenomenoak...

Adin-talde guztietan igo da euskararen erabilera 1989tik, adinekoetan izan ezik

1989tik 2021era haurren eta gazteen euskararen erabilera 4 puntu inguru igo da eta helduena 2,3 puntu. Adinekoen erabilerak 5,6 puntuko jaitsiera izan du. Azken neurketatik hona (2016-2021), haurren euskararen erabileran igoera neurtu da (% 18,3tik % 19,3ra). Gazteen, helduen eta adinekoen erabilerak, aldiz, ez du gorabehera esanguratsurik izan (+/- 0,2) bost urte horietan. Euskararen erabilera baxuagoa da adin-talde bereko hitzunen arteko elkarrizketetan.

Duela hogeita hamar urte, gazteek zerabilten euskara gutxien kaleran; gaur egun, ordea, adinekoek. Belaunaldi gazteetan euskaldunen proportzioak gora egin du, eta adinekoetan, aldiz, behera. Izan ere, 1989an adinekoen taldea osatzen zutenak desagertu ahala –euskaldunak zirenak proportzio esanguratsuan–, adinekoen multzora igaro dira orduan helduen multzo erdaldunagoa –guztietan erdaldunena– osatzen zutenak. Gainera, azken lau hamarkadatan, euskararen transmisioa asko zabaldu da. Besteak beste, eskolaren bidez euskaldundu dira milaka ume eta gazte.

Biztanleen adin-piramideari erreparatuz, gizartea zahartuz doan honetan, euskararen erabilera “gaztetu” egin dela esan daiteke. Euskarak adin-piramidea iraultzea lortu du: haurrak eta gazteak dira euskara gehien darabiltenak, eta helduak eta adinekoak gutxien. Hurrenkera hori aldatu izana lorpen sozial handia da. Izan ere, munduko eta Europako hizkuntza gutxitu gehienetan galera-prozesuaren hurrenkera mantentzen da, batez ere erabileran: adinekoek erabiltzen dute gehien eta gazteenek gutxien. Hori dela-eta, kualitatiboki, biziberritzerako egoerarik mesedegarrienean aurkitzen da euskara belaunaldien arabera.

Hurrengo urteetako bilakaerari begiratzean, garrantzitsua da haur eta gazteen joerei erreparatzea, nahiz eta biztanleria piramidean pisua txikia duten, eta beraz, baita erabilera-datu orokorrean ere. Kontuan hartu behar da eskolak euskaldundutako hitzun horien profil linguistikoa desberdina dela garai batean euskaldunen artean ohikoena zen profiletik. Gaur egun, euskaraz hitz egiteko gai diren gazte eta haur

gehienek gaztelania edo frantsesa dute lehen hizkuntza, eta hizkuntza horietan mintzatzeko erraztasun handiagoa dute.

Era berean, azpimarragarria da euskararen kale-erabilera baxuagoa dela gazteen artean haurren artean baino. Hain zuzen, gazteen mundua ez dago euskarari haurrena bezain lotua. Esaterako, haurrei zuzendutako eskaintzan presentzia handia du euskarak (kultur eskaintza, aisialdi antolatua, udalekuak...); gazteenean, ordea, eskaintza hori helduei eta adinekoei zuzentzen zaienera hurbiltzen da, euskarazko aukerak murriztagoak dira, alegia (sare sozialak, musika, kirola...).

Zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago gailentzen zaio emakumezkoen euskararen kale-erabilera gizonezkoenari

Emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik. Aldea handiagoa da haurretan eta gazteetan. Oro har, Euskal Herriko lurralde guztietan errepikatzen da fenomeno, eta neurketaren aurreko edizioetan ere behatu zen.

Euskararen biziberritze-prozesuan, emakumezkoen presentziak protagonismoa hartu du. Adibidez, emakumeen presentzia euskaltegietan edo euskararen aldeko egitasmoetan nabarmen handiagoa izan ohi da. Emakumeek eta gizonek euskara zein irudirekin eta zein baliorekin lotzen duten, eta horrek hizkuntza hautuan zein eragin duen aztertzea argigarria izan daiteke kaleetan behatutakoa hobeto ulertzeko. Euskararen erabilerak genero-rolekin duen harremana euskal soziolinguistikan gehiago sakondu beharreko gaia da.

Haurrak eta nagusiak batera dauden elkarrizketetan euskararen erabilera altuagoa da haurrak eta nagusiak bereizita daudenean baino

Are gehiago, haurrek eta nagusiek osatutako elkarrizketetan, gora doa euskararen kale-erabilera. Horrek erakusten du haurren eta nagusien arteko elkar-eraginak mesede egiten diola euskararen erabilerari. Guraso izateak askotan dakar euskararekiko kontzientzia eta praktika indartzea, eta haurrekin euskaraz aritzea. Indarrean dago haurren eta helduen arteko solasaldietan euskaraz egitera bultzatzen duen arau soziala. Baina era berean, aipatutako jokaerak ez du erabateko eragina berdinen arteko harremanetan, harreman-talde horizontaletan.

Euskara, gaztelania edo frantsesa ez diren beste hizkuntzen kale-erabilera % 3 ingurukoa da azken hamabost urteetan

Jatorri atzeritarreko biztanleak eta turistak dira beste hizkuntza horien hitzun potentzial nagusiak.

Jatorri atzeritarreko biztanleei dagokionez, kontuan izan behar da azken 20 urteetan biztanlerian duten pisua hirukoiztu egin dela Nafarroan eta laukoiztu EAEn. Gaur

egun, Hego Euskal Herriko lurraldeetako biztanlerian duten pisua % 10 eta % 16 bitartekoa da. Soziolinguistikoki esanguratsua da, halaber, multzo horren barruan jatorritik gaztelania hiztunak % 50 baino gehiago direla.

Kale erabilerari erreparatuz, beste hizkuntzen hiztunak gutxiengoa dira eta, beraz, beste hizkuntza horietan hitz egiteko aukera mugatua da. Jatorri atzerritarreko biztanleria hazi arren, beste hizkuntzen erabileraren datua maila berean mantentzen da. Horrek iradokitzen du iritsi berri den populazio horrek tarte labur-ertainean lurraldean ohikoenak diren hizkuntzak (gaztelania eta frantsesa, nagusiki) erabiltzen dituela kalean.

Kale neurketan jasotako beste hizkuntzen erabilera datuak bat datoz, neurri batean, jatorri atzerritarreko biztanleriaren ezaugarri demografikoekin. Arabako kaleetan entzun dira, batez ere, euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzak eta gizonezko helduen arteko elkarrizketetan nabarmendu da erabilera altuena –heldu gazteetan gehiago heldu nagusietan baino–.

Hiriburuetan nabarmentzen da beste hizkuntzen presentzia. Baionako, Gasteizko eta Bilboko kaleetan euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen erabilera euskararena baino altuagoa da. Iruñean parekoa da beste hizkuntzen eta euskararen erabilera maila. Hiriguneek jatorri atzerritarreko biztanleriaren bizileku bezala eta turismo gune bezala ezaugarri bereziak dituztela kontuan hartu behar da.

8.2 NONDIK EGIN AURRERA?

Testuinguru honetan, euskararen erabileraren hazkunde nabarmena lortu nahi bada hurrengo hamarkadetan, egokitzapenak eta berrikuntzak aplikatu beharko dira joan den mendean abiatutako biziberritze-ekimenetan; besteak beste, hizkuntza-politikan eta euskaingintza osatzen duten erakundeen eta mugimenduen jardunean. Nazioartean nahiz Euskal Herrian sortu diren erronka eta premia berriei eraginkortasunez erantzuteko indarberritze sakona behar da.

Ikerketa soziolinguistikoak funtzio garrantzitsua du egiteko horretan. Hizkuntzarekin lotutako egoera eta dinamika sozialak ulertzerakoan eta esku hartze eraginkorrak sortu eta hobetzerakoan, ezagutza zientifiko zorrotza hartu behar da oinarritzat. Era berean azterketa eta ikerketa-proiektu desberdinetatik eskuratutako informazioa eta jakintza trukatzeko, kontrastatzeko eta horren gainean hausnartzeko guneak beharrezkoak dira. Hizkuntza biziberritzeko egitasmo partekatutak ezagutza- eta hausnarketa-sare partekatua behar du.

Gizarte-bizitzaren esparru orotan euskararen erabilera erosoarako aukera bermatzeko, euskaraz inongo eragozpen eta zailtasunik gabe egin ahal izateko, hizkuntza-biziberritze prozesua indartu eta zabaldu behar da. Erabilerarako baldintza erosoak bermatzeko bide horretan, euskararen ezagutza unibertsalizatzeak tarteko helburu gisa joka dezake, besteak beste.

Esan liteke, azken urte hauetako ikerketei, adierazpen publikoei eta esku hartze proiektuei erreparatuz, adostasun zabala dagoela landu eta jorratu beharreko alorretan. Gehien aipatu direnen artean, honako hauek daude: hezkuntzan haur eta gazteen euskararen ezagutza-maila egokia bermatzea, herritarren sentsibilizazioa

eta erabilera-ohituren finkapena, helduen euskalduntzea, esparru sozio-ekonomikoa, eremu digitala eta hizkuntzaren teknologiak, eremu-ez formalean euskararen eskaintza (ikus-entzunezkoak, kirola, aisia...) bermatu eta biderkatzea, Euskal Herrira heldutako migratzaileen inklusioa eta aniztasunaren lanketa, euskal kultura sistema (sorkuntza nahiz kontsumoa) sendotzea, eta hizkuntza-eskubideen bermea.

Esparru horietako neurri eta politikak ezin litezke berberak izan leku guztietan, eta egokitu beharko dira Euskal Herriko eremu administratibo eta soziolinguistikoen errealitate askotarikoetara, zein jorratu beharreko sektore eta entitateen egoerara. Lurraldeen arabeko aniztasuna, lan-arlo edo sektore bakoitzaren egoera, gizatalde bakoitzaren bizi-baldintzak eta ohiturak... guztiak hartu beharko dituzte kontuan garatuko diren ekimen eta politikak eraginkorrak izateko.

Bestalde, euskararen biziberritze-prozesuak garai berri hauetara egokituriko narratiba eta diskurtso berriak eraiki beharko ditu. Euskararen biziberritze-prozesua kultur- eta hizkuntza-aniztasunaren defentsarekin batera landu beharko da. Gainera, feminismoa edo ekologismoa bezalako pentsamendu korronteekin eta gizartea aktibatze eta eraldatzeko gaitasuna erakusten duten mugimenduekin loturak estutzea oso baliagarria gerta liteke.

Euskararen biziberritzearena, ilusioz, erabakimenez, enpatiaz eta inteligentziaz gauzatu beharreko prozesu berritzaile eta eraldatzailea da, bizikidetzaz zainduz eta gizarte hobe bat eraikitze bidean.

9 EMAITZEN HEDAPENA

Ikerketa-prozesu osoa amaitu ostean (2020-2022), honako euskarri dibulгатibo hauek eratu dira:

- **Emaizten laburpen txostena:** ikerketaren ezaugarriak, emaitzen laburpena eta ondorioak jasotzen dituen dokumentu arina eta ulerterraza da. Paperezko aldaera argitaratu da, eta www.soziolinguistika.eus/kaleneurketa21 webgunean ikusgai izango da. Euskarazko, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko bertsioak ditu.
- **Bideoak:** sare sozialetan eta bat-bateko mezularitza bidez emaitza nagusiak zabaltzeko ikus-entzunezko euskarri laburra, batetik. Bestetik, aurkezpen publikoetan gaiaren kokapen gisa erabiltzeko aldaera luzeago bat. Gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez azpigitulaturik ikusteko aukera dute.
- **www.soziolinguistika.eus/kaleneurketa21:** materialak eta ikerketari buruzko informazio gehiago biltzen dituen webgunea. Emaitza nagusiak modu grafiko argi, erraz eta dinamikoan kaleratzen ditu.

Gainera, 2022. urtean zehar, ikerketaren emaitzak hedatzeko hainbat aurkezpen egingo dira:

- 2022/06/22 – Euskal Soziolinguistika Jardunaldia (Bilbo)
Hizkuntzen erabileraren kale-neurketaren emaitzek kaleetan gertatzen diren hizkuntza-praktiken irudia ematen dute. Informazio hori eskura izanik, praktika horien atzean dagoen errealitate soziolinguistikoko konplexua interpretatu eta ulertzea da erronka. Soziolinguistika Klusterrak interpretazio-, eztabaida-, hausnarketa- eta kontraste- ariketa kolektiboa proposatzen du, eta horretarako topagunea antolatu du. Euskararen biziberritze-prozesuan lanean diharduten ikerlari, teknikari, arduradun politiko, aholkulari, irakasle, aktibista eta gaian interesa duen herritar orok aukera izango du aipatutako topagunean parte hartzeko.
Laguntzaileak: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala
- 2022/07/13-16 – Sociolinguistics Symposium (Gant)
- 2022/09/13-16 – III Congrés Internacional de Revitalització de Llengües Indígenes i Minoritzades (Girona)

Azkenik, Bat Soziolinguistika Aldizkariak ikerketaren emaitzak aztertuko dituen zenbaki monografikoa kaleratuko du 2022. urtearen amaieran.

10 BIBLIOGRAFIA

Aierdi, X., Uranga, B., & Iñarra, M. (2021). Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza aniztasunaren mapa. Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren arabera hurbilketa. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 119, 11–38.

Altuna, O. (2002). Erabileraren IV Kale Neurketa. Eraitzen azterketa. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 43, 37–48.

Altuna, O. (2013). Observacions de l'ús de la llengua al País Basc: Dues dècades mesurant l'ús oral al carrer. *Revista de Llengua i Dret*, 60, 111–124. <https://doi.org/10.2436/20.8030.02.32>

Altuna, O. (2018). Euskaldunon dentsitateak zer-nolako eragina du euskararen kale-erabileran? *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 106, 11–27.

Altuna, O., & Basurto, A. (2013). *Gida metodologikoa: Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko = Survey methods: a guide to language use observation*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Altuna, O., & Urla, J. (2013). The Basque Street Survey: Two Decades of Assessing Language Use in Public Spaces. *International Journal of the Sociology of Language*, 2013(224). <https://doi.org/10.1515/ijsl-2013-0061>

Alvarez Enparantza Txillardeggi, J. L. (2002). *Hacia una socio-lingüística matemática*. Euskal Soziolinguistika Institutoa Sortzen.

Augé, M. (2004). *Los «no lugares»: Espacios del anonimato: una antropología de la modernidad*. Gedisa.

Birnie, I. (2018). Gaelic language use in public domains – language management initiatives versus de facto linguistic practices. In *Gaelic in Contemporary Scotland: The Revitalisation of an Endangered Language* (Marsaili MacLeod eta Cassie Smith-Christmas (edit.), or. 128–140). Edinburgh University Press. <https://pureportal.strath.ac.uk/en/publications/gaelic-language-in-public-domains>

Bromham, L., Dinnage, R., Skirgård, H., Ritchie, A., Cardillo, M., Meakins, F., Greenhill, S., & Hua, X. (2022). Global predictors of language endangerment and the future of linguistic diversity. *Nature Ecology & Evolution*, 6(2), 163–173. <https://doi.org/10.1038/s41559-021-01604-y>

Calvet, L.-J. (2017). *Les langues, quel avenir? Les effets linguistiques de la mondialisation*. CNRS éditions.

Crystal, D. (2003). *English as a Global Language* (2. arg.). Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511486999>

De la Calle Vaquero, M. (2019). Turistificación de centros urbanos: Clarificando el debate. *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, 83. <https://doi.org/10.21138/bage.2829>

Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), Nafarroako Gobernua (Euskarabidea), & Euskararen Erakunde Publikoa / Office Public de la Langue Basque. (2019). VI. *Inkesta Soziolinguistikoa (2016)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/eas_mas_noticias/fr_def/adjuntos/VI_Inkesta-soziolinguistikoa.pdf

Feixa, C. (2005). La habitación de los adolescentes. *Papeles del CEIC*, 16. <https://ojs.ehu.es/index.php/papelesCEIC/article/download/12125/11047>

Gaindegia. (2021). *Euskal Herria. Adierazle Galeria Nagusia*. 2021. https://gaindegia.eus/sites/default/files/AGN-euskal-herria-2021_8.pdf

Goirigolzarri Garaizar, J. (2021). Gazteak eta euskara pandemia garaian. In «*Gazteak eta pandemia. Adituen begiradak*» ikerketa (Libk. 1–600). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/noticia/pandemia_adituen_begiradak/eu_def/adjuntos/Gazteak_eta_pandemia_Adituen_begiradak_e.pdf

Hernández García, J. M. (2010). Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak = Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca = Travaux et actes de l'Académie de la Langue basque*, 55(2), 579–607.

Hernández García, J. M., & Santamaria Barinagarrementeria, A. (2022). Do It Yourselfetik planifikaziora. Euskal hiztun gazteak eta berreskurapenaren auziak. *Fontes Linguae Vasconum*, 132, 349–374. <https://doi.org/10.35462/flv132.4>

Hiria Kolektiboa. (2010). Hiri analisirako manuala. Generoa eta eguneroko bizitza. *Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia*. https://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=047617&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf

Isasi, X., & Iriarte, A. (1998). "Euskararen kale-erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa", BAT Soziolinguistika aldizkaria 28, 51-80 orr. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 28, 51–80.

Isasi, X. (2000). Hizkuntza gutxitua, bizi iraupena eta normalkuntza. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 36, 11–25.

Iurrebaso, I. (2012). Metodozko hainbat proposamen euskararen erabilera zertan den aztertze. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 84, 89–101.

Iurrebaso, I. (2021). Euskarazko hizkuntza-gaitasuna eta erabilera: Zer dago indartsuen?, zer ahulen? *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria = revista de pensamiento e historia*, 69, 24–39.

Juaristi Larrinaga, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak: Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Universidad del País Vasco, Servicio Editorial.

Kasares, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan: Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Euskaltzaindia.

